



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika

EAE 2018

Emaitzen txostena

2020ko martxo



Berio Pasealekua 11, 20018 Donostia
Tel. (+34) 943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus / www.siadeco.eus

Siadeco^x
ikerketan aplikatua

Aurkibidea

1. Ikerlanaren ezaugarriak eta metodologia	4
1.1. Ezaugarriak.....	5
1.2. Fitxa teknikoa	6
2. Herri administrazioen euskara aurrekontuak	8
2.1. EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua, 2018	9
2.2. Euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera, 2006-2018	10
2.3. Herri administrazioek euskarara bideratutako aurrekontu likidatuak, 2018	12
2.4. Aurrekontu likidatuen bilakaera, 2006-2018.....	13
2.4.1. Datu orokorrak eta erakunde motari jarraiki.....	13
2.4.2. Foru aldundien euskara aurrekontu likidatuen bilakaera	14
2.4.3. Udal eta hiriburuen euskara aurrekontu likidatuen bilakaera	15
2.4.4. Euskara aurrekontu likidatuek herri administrazioen guztirako aurrekontuen parean izandako bilakaera	22
2.5. Herri administrazioen euskara aurrekontuen ratioak, 2018	26
2.5.1. Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontua, 2018.....	26
2.5.2. Euskarara bideratutako gastuaren pisu erlatiboa, 2018	27
2.6. Euskara aurrekontuen ratioen bilakaera, 2006-2018	28
2.6.1. Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontuaren bilakaera	28
2.6.2. Euskarara bideratutako gastu erlatiboaren bilakaera	30
2.7. Euskararako diru laguntzen aurrekontuak, 2018	32
2.8. Euskararako dirulaguntzen bilakaera, 2012-2018	34
2.9. Herri administrazioen arteko euskara arloko transferentziak	37
2.10. Eusko Jaurlaritzaren euskara arloko barne transferentziak.....	39
2.11. Udal eta hiriburuen finantzaketa iturriak	41
2.12. Euskara gastuen izaera ekonomikoa	43
2.13. Euskara gastuen izaera ekonomikoaren bilakaera, 2006-2018.....	46

3. Normalizazio eremuak eta aurrekontuak.....	56
3.1. Eremuen definizioa	57
3.2. Eremuaren arabera analisi.....	60
3.3. Erakunde motaren arabera analisi	67
3.4. Lurraldearen arabera analisi	81
3.5. Udalerrien tamainaren arabera analisi	85
3.6. Gune soziolinguistikoaren arabera analisi.....	88
4. Euskara sustatzeko dirulaguntzak.....	91
4.1. Datu orokorrak	92
4.2. Eusko Jaurlaritza	95
4.3. Foru aldundiak.....	101
4.4. Hiriburuak	106
4.5. Udalak	111
4.6. Udalerrien biztanleriaren arabera azterketa.....	118
4.7. Gune soziolinguistikoaren arabera azterketa	121
4.8. Eremu desberdinetan dirulaguntzak eskainitako udalen kopurua eta egindako ahalegina	124
4.9. Dirulaguntzen informazio gehigarria	130
5. Hizkuntza normalizaziorako giza baliabideak	132
5.1. Herri administrazioen euskara zerbitzuetako pertsonala	133
5.2. Euskara ataletako lanpostuak.....	137
5.3. Euskara ataletako langileen kontratazio egoera	139
5.4. Euskara ataletako langileen lan kategoria edo kidegoa	141
5.5. Euskara ataletako langileak sexuaren ikuspegitik	142
6. Eraitza nagusiak.....	143
7. Eranskinak.....	151

1.

Ikerlanaren ezaugarriak eta metodologia

1.1. Ezaugarriak

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako euskara aurrekontuei buruzko azken estatistika jaso da txosten honetan. Azterlan hori bi urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Txosten honetan, EAEko administrazio publikoek 2018an likidatutako aurrekontuetako datuak izan dira aztergai.

Bi helburu nagusi ditu ikerketa honek: batetik, jakitea zein den EAEko erakunde publikoek euskararen sustapenean egiten duten ahaleginaren neurri ekonomikoa; bestetik, ahalegin horren bilakaera aztertzea.

Euskara aurrekontuei buruz egindako azterketa moldeari jarraikiz, honako atal hauen arabera egitura dute emaitzek:

- **Herri administrazioen euskara aurrekontuak.** Atal honetan jaso da zenbatekoa den EAEko administrazio publikoko erakunde guztien euskara aurrekontu bateratua edo kontsolidatua, eta zer bilakaera izan duen 2006tik 2018ra. Kontuan izatekoa da guztirako aurrekontu bateratua edo kontsolidatua txikiagoa dela administrazio guztien euskara aurrekontu likidatuaren batura baino; izan ere, aurrekontu kontsolidatua kalkulatzeko, behin soilik kontabilizatu dira herri administrazioen aurrekontu likidatueta errepikatuak dauden zenbatekoak—horretarako, udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean guztira kudeatutako euskara aurrekontu likidatuari kendu egin zaio foru aldundiek eta Jaurlaritzak udalei egindako transferentzien zenbatekoa—. Beraz, aurrekontu kontsolidatuak adierazten du EAEko herri administrazio guztien artean zenbat diru bideratu duten hizkuntza normalizaziora; herri administrazio guztien euskara aurrekontu likidatuaren baturak, berriz, adierazi du erakunde publikoek guztira zenbat diru kudeatu duten euskararako, haien arteko transferentziak barne. Txostenaren 2.1 eta 2.2 ataletan jaso dira EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuari buruzko datuak; bigarren ataleko gainerako azpitaldeetan, berriz, aurrekontu likidatuak hartu dira oinarritzat, datuen azterketa erakunde motaren arabera egin baita.
- **Normalizazio eremuen arabera euskara aurrekontu likidatuak.** Atal honetan bildu da euskararen jabeakuntza, erabilera edota elikadura helburu duten programen eta gastu moten azterketa; hamazazpi eremutan bereizi dira euskarara bideratutako diru baliabideak, eta azterketa horren bitartez ikus daiteke erakunde mota bakoitzean zein eremutara bideratu duten dirua. Aurrekontu likidatuak hartu dira analisi horren oinarritzat.
- **Euskara sustatzeko dirulaguntzak.** Atal honek erakusten du euskararako dirulaguntzetara zenbat bideratzen den eta dirulaguntza horiek zer bilakaera izan duten azken urteetan.
- **Euskara arloetako giza baliabideak.** Kapitulu honetan aztertu dira EAEko herri administrazioetan hizkuntza normalizaziora eta euskararen sustapenari lotuak dauden giza baliabideei eta enpleguari buruzko datuak.

1.2. Fitxa teknikoa

Ikerketa honetarako datu bilketa egin da 5.000 biztanlez gorako udal guztietan, hiru foru aldundietan eta Eusko Jaurlaritzako sail guztietan. Siadeco Ikerketa Elkartek egin du landa lana, eta ikerketa honen lanerako unibertsoa osatzen duten erakunde publiko guztien datuak eskuratu dira; partaidetza maila %100ekoa izan da, hau da, entitate guztietako erantzunak eta datuak jasotzea lortu da. Hona hemen estatistikaren fitxa teknikoa eta prozedura metodologikoari buruzko argibideak:

- **Estatistikaren erreferentzia urtea.** 2018a. Herri administrazioen 2018ko aurrekontu likidatuak hartu dira kontuan, onartutako obligazioen fasean kontabilizatutako kopuruak, alegia.
- **Datu bilketa egindako unea.** 2019ko azaroa 2020ko urtarrila.
- **Landa lana egin duen entitatea.** Siadeco Ikerketa Elkartea.
- **Landa lanerako prozedura.** Erakundeetatik zuzenean jaso dira datuak. Bilketa egiteko, galdetegi egituratu bat erabili da, eta informazioa kontrastatu egin da erakundeetako kontu hartzaileekin eta euskara ataletako teknikariek.
- **Ikerlanaren unibertsoa:** Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak, hiru herrialdeetako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza (haren sailak eta menpeko erakunde autonomiadunak barne). Guztira, 95 informazio unitate: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako 68 udal (hiriburuak kanpo), EAEko hiru hiriburuak, hiru foru aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzaren 21 sail eta erakunde autonomiadun. 2016ko estatistikarekin alderatuta, hiru informazio unitate gehiago dira, guztiak Eusko Jaurlaritzari dagozkionak.

1. taula: Ikerlanaren unibertsoa

	UNIBERTSOA	
	Entitate kopurua	%
Udalak (> 5.000 biztanle)	68	71,6
Hiriburuak	3	3,2
Foru aldundiak	3	3,2
Eusko Jaurlaritza (sailak eta erakunde autonomiadunak)	21	22,1
GUZTIRA	95	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

- **Erantzun maila.** %100ekoa: ikertu beharreko unibertsoko entitate guztietako informazioa jasotzea lortu da.
- **Aztergai izan diren udalen irismen maila.** Hiru hiriburuetan eta azterlanean parte hartu duten 5.000 biztanlez gorako gainerako 68 udalerrietan 1.961.087 biztanle bizi dira; EAEko biztanleria osoaren ia %90 da hori. Arabaren kasuan, Gasteiz eta beste hiru udalerri bakarrik dira 5.000 biztanlez gorakoak (Agurain, Amurrio eta Laudio); biztanleria aldetik, hala ere, lurralde osoko biztanleen %85 ordezkatzen dituzte. Bizkaian eta Gipuzkoan (hiriburuak barne) 33 eta 34 udalerri dira, hurrenez hurren, 5.000 biztanlez gorakoak; udalerri horietan bizi den biztanleria lurralde osokoaren %90 inguru da.

2. taula: Ikerlanean parte hartu duten udalerrien irismen maila

	Unibertsua		Udalerriak guztira		Irismen maila (%)	
	Udalerri kopurua	Biztanleria	Udalerri kopurua	Biztanleria	Udalerri kopurua	Biztanleria
Arabako udalerriak (Gasteiz barne)	4	280.209	51	327.967	7,8	85,4
Bizkaiko udalerriak (Bilbo barne)	33	1.025.595	112	1.142.853	29,5	89,7
Gipuzkoako udalerriak (Donostia barne)	34	655.283	88	717.197	38,6	91,4
GUZTIRA	71	1.961.087	251	2.188.017	28,3	89,6

Iturria: Eustat, 2019- Siadecok landutako datuak

2.

Herri administrazioen euskara aurrekontuak

2.1. EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua, 2018

Hau izan da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako euskara aurrekontu bateratua edo kontsolidatua 2018an: 158,4 milioi euro. Kalkulu hori honela egin da: gehitu egin dira 5.000 biztanlez gorako udalerrri guztietako euskara aurrekontu likidatuak, hiru foru aldundienak eta Eusko Jaurlaritzarenak, eta, jarraian, kopuru horri kendu egin zaizkio aldundietatik eta Jaurlaritzatik udal horietara egindako transferentziak. Bikoizketak saihestu dira hartara. Kopuru horrek adierazten du, hortaz, benetan zenbat diru bideratu den euskararen arlora EAEko herri administrazio guztien artean —instituzio horien guztien artean kudeatutako euskara aurrekontu likidatuaren batura handiago da aurrekontu kontsolidatua baino—.

Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontua 94,3 milioi eurokoa da, EAEko guztirako aurrekontuaren %59,6. Zenbateko horrek biltzen du Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomiadun guztiek zenbat diru bideratu duten euskarara 2018an —sailen artean edo sailetatik erakunde autonomiadunetara egindako transferentziak bikoiztu gabe kalkulatu da—. Kopuru horrek adierazten du, beraz, Jaurlaritzak osotasunean zenbateko ahalegin ekonomikoa egin duen.

Hiru foru aldundiek 17,7 milioi euro jarri dituzte; hots, erkidegoko aurrekontu kontsolidatuaren %11,2.

5.000 biztanle baino gehiagoko udalek, berriz, 46,3 milioi euro jarri dituzte 2018an euskararen alorrean. Horietatik 36,5 milioi hiriburuak ez diren 68 udalerriei dagozkie; erkidegoan bideratutako diru bolumenaren %23,0 jarri dute udal horiek. Hiru hiriburuak 9,9 milioi euro jarri dituzte, erkidegoko zenbateko osoaren %6,2. Kopuru horietatik kenduta daude Jaurlaritzatik edo diputazioetatik udaletara egindako transferentziak: udalek egindako ekarpen garbia adierazi da, beraz.

3. taula: EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua (2018)

Erakunde mota	Euskara Aurrekontua 2018	
	€	%
Udalak (udal funtsetatik finantzatutako euskara aurrekontua)	36.455.170	23,0
Hiriburuak (udal funtsetatik finantzatutako euskara aurrekontua)	9.861.918	6,2
Foru aldundiak	17.738.223	11,2
Eusko Jaurlaritza	94.360.173	59,6
Euskara aurrekontu kontsolidatua GUZTIRA	158.415.483	100,0


Iturria: Siadeco, 2019.

2.2. Euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera, 2006-2018

Erkidegoko kopuru orokorrari erreparatuta, ondorioa da 2014an hasitako gorabidea nabarmen sendotu dela 2018an: bi urtean ia 9,8 milioi euro areagotu da euskara aurrekontu kontsolidatua, 2014ko eta 2016ko kontuetan baino gehiago. Igoera adierazgarria izanda ere, aurrekontua oraindik ez da iritsi 2008ko eta 2010eko kopuruetara. Hamabi urteko eboluzioa aztertuta, hona hemen gako aipagarrienak:

- Lehen epealdian (2006-2008), areagotu egin zen euskara aurrekontu kontsolidatua, %12,9. Hiru erakunde esparruetan areagotu ere: Eusko Jaurlaritzan, diputazioetan eta udaletan.
- Bigarren tartean (2008-2010), jaitsierak hasi ziren: %5,6 murriztu zuten euskara aurrekontua. Ez zuten jokabide bera izan instituzio arlo guztiek. Udalek handitu egin zuten euskara bideratutako diru kopurua —batez ere hiriburuetakoez—, baina Eusko Jaurlaritzak eta diputazioek, jaitsi.
- Hirugarren epealdian (2010-2012), areagotu egin zen beherakada: %12,9. Erakunde esparru guztietan jaitsi ziren diru kopuruak orduan, Jaurlaritzak izan zuen jaitsierarik handiena (%17).
- Laugarren epealdian (2012-2014) nabaritu zen joera aldaketa: igoera, %2,8koa. Aldundietan ez beste erakunde guztietan handitu zuten euskararen arlorako diru kopurua —diputazioetan %10,9 jaitsi zuten aurrekontua tarte horretan—. Batik bat hiriburuetako udalek jo zuten gorakada (%13,8).
- Bosgarren tartean (2014-2016), berretsi egin zen igoera, nahiz eta 2012-2014 epealdian baino txikiagoa izan (%1,4). Hiriburu ez diren udalek izan zuten gorakadarik sendoena, %15,5ekoa. Gora egin zuten, baita ere, aldundiek (%7,7) eta hiriburuetako udalek (%7,6). Jaurlaritzak izan zen salbuespena: %4,9 murriztu zuten euskararako aurrekontua.
- Seigarren epealdian (2016-2018), gorabidea sendotu egin da, eta aurreko bi tarteetan baino gehiago igo da aurrekontua: %6,6. Hiriburuetako udalak dira nabarmentzekoak proportzioan: %11,5eko igoera. Eusko Jaurlaritzaren igoera dago bigarren lekuan, %8,5ekoa, eta foru aldundiena hirugarrenean (%5,6). Txikiagoa izan da gainerako udalen igoera (%3,5)

1. irudia: EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraikiz (milioi €)



Euskara aurrekontuei buruz egindako azken zortzi azterketak elkarren segidan jarrita ikus daiteke zer eboluzio izan duen erakunde esparru bakoitzaren pisuak. 2006tik 2018rako tartean, bi aldaketa nagusi nabari dira. Batetik, Eusko Jaurlaritzak pisua galdu du: 2006an guztirako euskara aurrekontuaren %69,4 zeukan, eta 2018an, %59,6. Kontuan izan behar da 2010era arteko aldietan euskara aurrekontuak kalkulatzeko irizpide batzuk erabili zituela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, eta 2012tik aurrera beste batzuk hartu direla aintzat; nolana ere, 2012tik 2018ra ere pisua galdu du Jaurlaritzak. Bestetik, hiriburu ez diren udalek egin dute aldaketa nabarmena: pisua irabazi dute. Euskara aurrekontuaren %15,7 zuten 2006an, eta 2018an, %23,0. Hiriburuetako udalek eta diputazioek ere igoera izan dute ehunekoan, baina mugatuagoa: hiriburuak %4,5 zuten, eta %6,2 dute; aldundiek %10,4 zuten, eta %11,2 dute.

Hurrengo koadroan ageri da euskara aurrekontuek zehazki zer bilakaera izan duten hamabi urtean. Kontuan izatekoa da udalen datuak ez direla erakunde horien guztirako aurrekontu likidatuak, kendu egin baitira diputazioetatik eta Eusko Jaurlaritzatik jasoak zituzten diru kopuruak. Horren ondorioz, kopuru desberdinak ageri dira atal honetako laugarren koadroan eta bosgarrenean, udalen datuei dagokienez; Jaurlaritzaren eta aldundien datuetan, ordea, ez dago alderik, kontsolidazioa jatorrian egin baita, erakunde horiek egindako transferentziak izanik.

4. taula: EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraikiz

Erakunde mota	2006		2008			2010			2012			2014			2016			2018		
	€	%	€	%	2006-2008 bilakaera (%)	€	%	2008-2010 bilakaera (%)	€	%	2010-2012 bilakaera (%)	€	%	2012-2014 bilakaera (%)	€	%	2014-2016 bilakaera (%)	€	%	2016-2018 bilakaera (%)
Udalak	23.988.332	15,7	29.149.944	16,9	21,5	29.340.118	18,0	0,7	28.444.988	20,1	-3,1	30.497.349	20,9	7,2	35.230.958	23,8	15,5	36.455.170	23,0	3,5
Hiriburuak	6.813.748	4,5	7.996.037	4,6	17,4	8.494.986	5,2	6,2	7.227.229	5,1	-14,9	8.222.002	5,6	13,8	8.843.245	6,0	7,6	9.861.918	6,2	11,5
Foru aldundiak	15.961.175	10,4	19.926.465	11,6	24,8	18.131.469	11,1	-9,0	17.507.814	12,3	-3,4	15.592.318	10,7	-10,9	16.789.790	11,4	7,7	17.738.223	11,2	5,6
Eusko Jaurlaritza	106.074.632	69,4	115.404.359	66,9	8,8	106.785.965	65,6	-7,5	88.598.386	62,5	-17,0	91.443.891	62,7	3,2	86.975.067	58,8	-4,9	94.360.173	59,6	8,5
Kontsol.	152.837.887	100,0	172.476.805	100,0	12,9	162.752.538	100,0	-5,6	141.778.417	100,0	-12,9	145.755.560	100,0	2,8	147.839.060	100,0	1,4	158.415.483	100,0	7,2

Iturria: Siadeco, 2019.

Oharra: udaletan eta hiriburuetan, udal funtsetatik finantzatutako aurrekontua.

2.3. Herri administrazioek euskarara bideratutako aurrekontu likidatuak, 2018

EAEko herri administrazioek guztira 160,4 milioi kudeatu dituzte 2018an euskararen esparruan. Horietatik 10,1 milioi hiru hiriburu eta udalek kudeatu dituzte, eta beste 38,2 milioi, 5.000 biztanlez gorako gainerako udalerriek. Zenbaki horietan sartuta daude diputazioetatik eta Eusko Jaurlaritzatik udalek 2018an jasotako diruak. Aldundiek 17,7 milioi euroko aurrekontua likidatu dute, eta Jaurlaritzak, 94,4 milioi eurokoa.

5. taula: Euskara aurrekontu likidatuak, erakunde motari jarraikiz (2018)

Erakunde mota	Aurrekontua 2018	
	€	%
Udalak	38.212.933	23,8
Hiriburuak	10.122.526	6,3
Foru aldundiak	17.738.223	11,1
Eusko Jaurlaritza	94.360.173	58,8
GUZTIRA	160.433.855	100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Udalen eta hiriburuaren kasuan, euskara aurrekontu likidatuetan sartuta daude foru aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik euskararen esparrurako jasotako diru transferentziak; diputazioen eta Jaurlaritzaren kasuan, berriz, likidatutako kopuruak bat datoz kopuru kontsolidatuekin.


2.4. Aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2018

2.4.1. Datu orokorrak eta erakunde motaren arabera

EAEko herri erakunde euskara aurrekontuak 2008an izan zuten kopururik handiena: 177,5 milioi euro. Erkidegoko erakunde guztien euskara aurrekontu likidatuaren batura da hori. 2008ko kopuru horren ostean, jaitsiera nabarmenak iritsi ziren hurrengo urteetan; 2012an jo zuen behea aurrekontuak, 145 milioi euroan. 2014an hiru milioi gorago zegoen kopurua; 2016an, ia bost milioi gehiago 2012an baino; eta 2018an, ia hamabost milioi gorago.

- Guztirako aurrekontu likidatuaren pisu handia dauka Jaurlearitzak. 2010eko eta 2012ko datuetan nabari da eragina. 2014an igo egin zuen aurrekontu likidatua; 2016an, jaitsi; 2018an, gehiago igo.
- Aldundien kasuan, 2016an gelditu zen aurreko urteetako beheranzko joera, eta 2018an igo dute aurrekontua.
- Udalen kasuan, 2014an hasi zen goranzko joera, eta 2018an ere berretsi egin da. Izatez, aztertutako epealdiko diru kopururik handiena 2018an dute udalek.

2. irudia: Euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraituz (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2019.


2.4.2. Foru aldundien euskara aurrekontu likidatuen bilakaera

Diputazioetako euskara aurrekontuak nabarmen handitu ziren 2006tik 2008ra (%24,8), eta ordutik beherazko bidea egin zuten 2014ra arte —%7,7 egin zuten gora 2014tik 2016ra—. Igoera izan da 2018an ere: %5,6.

Azken edizio honetan, hiru aldundiek izan dute jokabide berbera; hiru diputazioek egin dute gora: Gipuzkoakoak %9,8, Arabakoak %7,1 eta gutxixeago Bizkaikoak (%2,3) . Dirutan: Gipuzkoak, 6,1 milioitik 6,7ra igo du; Arabak 2,3 milioitik 2,5era; eta Bizkaiak, 8,4 milioitik 8,6ra

Azterketaren epealdi osoari erreparatuz gero (2006-2018), nabari dira gorabeherak. 2006-2008an, bai, hirurek handitu zuten euskara aurrekontua, baina diferentziak hasi ziren ondoren. 2010ean, Bizkaiak eta Gipuzkoak murriztu zuten, eta Arabak, igo. 2012an egin zuen %28ko murrizketa Arabako Foru Aldundiak, eta aurrekontua igo du hurrengo hiru aldietan. Bizkaiko Foru Aldundiak behera egin zuen nabarmen 2014ean eta aldiz gora zertxobait azken bi ediziotan. Gipuzkoako Diputazioak 2010ean eta 2012an jaitsi zuen euskararako diru saila; gainerako aldietan igo egin du, baita 2018an ere.

3. irudia: Foru aldundietako aurrekontu likidatuen igoera-jaitsiera indizearen (%) bilakaera, lurraldeari jarraikiz (2006-2018)



Iturria: Siadeco, 2019.


2.4.3. Udalen eta hiriburuen euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera

5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udalen euskara aurrekontu likidatuak azterturik –hiriburuak aparte utzita–, igoera nabaritu da azken epealdian ere (%2,8). Hala gertatu zen 2012-2014 eta 2014-2016 artean ere (%3,8 eta %13,8). Aurreko urteetan, berriz, jaitsierak izan ziren. Aztertutako lehen epealdian (2006-2008) ageri da gorabehera handiena, eta positiboa izan zen: %21,4ko igoera.

Hiriburu ez diren udalak herrialdearen arabera aztertuz gero, nabari dira aldeak. Azken epealdian (2016-2018) ez da izan aparteko alderik, %2-3 inguruan baitabiltza igoerak. Lehenago, bai, alde handiak izan ziren. Aurreko tartean (2014-2016), igoera handia izan zuten Arabako udalak (%45), eta adierazgarria Bizkaikoek (%14) eta Gipuzkoakoek (%13). Arabako udalak 2014az geroztik ari dira gorantz; Bizkaikoak, 2012tik; eta Gipuzkoakoak, 2014tik.

+ -

4. irudia: Udaletako euskara aurrekontu likidatuaren igoera-jaitsiera indizearen (%) bilakaera, lurraldeari jarraikiz (2006-2018)



Iturria: Siadeco, 2019.

5.000 biztanle baino gehiagoko 68 udalerrietako udaletatik, 45etan egin dute gora euskara aurrekontu likidatuak azken epealdian, hirutik bitan. 23 udaletan berriz, behera egin dute. Hiru lurraldeetan igoera eta jaitsiera izan duten udalen portzentajea igualtsua da.

Igoera txikia izan dute 14 udalek (<%5) eta %5-%10 artekoa 16k; baina aipatzekoa da 15 udaletan euskara aurrekontuak igoera handia izan duela (%10 baino gehiago). Jaitsierei dagokionez, 7k jaitsiera txikia (<%5) izan dute eta 9k %5-%10 artekoa, baina izan dira ere %10eko jaitsiera baino handiago izan duten udalak.

Euskara aurrekontuak gora egin du herritarren %70 baino gehiago euskaldunak diren udalerrietako udaletan (%86), eta euskaldunak %30-%50 artean direnetan (%72). Aldiz, gehiago dira jaitsi direnak euskaldunak %30 baino gutxiago edo %50-%70 artekoak direnetan (%42 eta %46 hurrenez hurren).

10 milaz biztanlez azpiko udalerrietako udaletan zertxobait gehiago dira aurrekontuan behera egin dutenak (%38).

6. taula: 5000 biztanlez gorako udalerrietako udalak, 2016-2018 epealdian, euskara aurrekontuak izan duen bilakaeraren arabera, herritar euskaldunen portzentajeari eta biztanleriari jarraikiz

	Euskaldunen %								Biztanleria						Guztira	
	Eusk <=%30		Eusk %31-%50		Eusk %51-%70		Eusk >%70		< 10 mila biztanle		10-20 mila biztanle artean		>20 mila biztanle		Kop	%
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%		
Igoera >%10	4	33,3	7	38,9	2	8,3	2	14,3	6	20,7	6	26,1	3	18,8	15	22,1
Igoera %5-%10 artean	2	16,7	1	5,6	8	33,3	5	35,7	7	24,1	6	26,1	3	18,8	16	23,5
Igoera <%5	1	8,3	5	27,8	3	12,5	5	35,7	5	17,2	4	17,4	5	31,3	14	20,6
Igoera	7	58,3	13	72,2	13	54,2	12	85,7	18	62,1	16	69,6	11	68,8	45	66,2
Jaitsiera <%5	2	16,7	1	5,6	4	16,7	0	0,0	4	13,8	3	13,0	0	,0	7	10,3
Jaitsiera %5-%10 artean	0	0,0	2	11,1	5	20,8	2	14,3	6	20,7	2	8,7	1	6,3	9	13,2
Jaitsiera >%10	3	25,0	2	11,1	2	8,3	0	0,0	1	3,4	2	8,7	4	25,0	7	10,3
Jaitsiera	5	41,7	5	27,8	11	45,8	2	14,3	11	37,9	7	30,4	5	31,3	23	33,8
Guztira	12	100,0	18	100,0	24	100,0	14	100,0	29	100,0	23	100,0	16	100,0	68	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

Azken 10 urteko bilakaerari dagokionez (2008-2018), udalen erdiak baino gehixeagok euskara aurrekontu altuagoak ditu 2018an 2008an baino (35 udalek); aldiz, 2008an baino euskara aurrekontu baxuagoak izan dituzte 2018an 29 udalek.

Euskaldunak %51-%70 artean diren udalerrietako udaletan eta 10 milaz beherakoetan gehiago dira balantze negatiboa dutenak, azken neurraldian, 2008koan baino euskara aurrekontu baxuagoa izan dutenak.

7. taula: 5000 biztanlez gorako udalerrietako udalak, 2008-2018 epealdian, euskara aurrekontuak izan duen bilakaeraren arabera, herritar euskaldunen portzentajeari eta biztanleriari jarraikiz

	Euskaldunen %								Biztanleria						Guztira	
	Eusk <=%30		Eusk %31-%50		Eusk %51-%70		Eusk >%70		< 10 mila biztanle		10-20 mila biztanle artean		>20 mila biztanle			
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Igoera >%50	5	41,7	3	17,6	5	21,7	1	8,3	4	16,0	5	21,7	5	31,3	14	21,9
Igoera %20-%50 artean	1	8,3	4	23,5	1	4,3	2	16,7	2	8,0	4	17,4	2	12,5	8	12,5
Igoera %10-%20 artean	0	,0	1	5,9	3	13,0	2	16,7	4	16,0	2	8,7	0	,0	6	9,4
Igoera < %10	1	8,3	2	11,8	2	8,7	2	16,7	3	12,0	2	8,7	2	12,5	7	10,9
Igoera	7	58,3	10	58,8	11	47,8	7	58,3	13	52,0	13	56,5	9	56,3	35	54,7
Jaitsiera <%10	3	25,0	4	23,5	3	13,0	1	8,3	3	12,0	3	13,0	5	31,3	11	17,2
Jaitsiera %10-%20 artean	2	16,7	1	5,9	3	13,0	3	25,0	7	28,0	1	4,3	1	6,3	9	14,1
Jaitsiera >%20	0	,0	2	11,8	6	26,1	1	8,3	2	8,0	6	26,1	1	6,3	9	14,1
Jaitsiera	5	41,7	7	41,2	12	52,2	5	41,7	12	48,0	10	43,5	7	43,8	29	45,3
Guztira	12	100,0	17	100,0	23	100,0	12	100,0	25	100,0	23	100,0	16	100,0	64	100,0

Iturria: Siadeco, 2019


Jarraian bi epealdi horietan udalek izandako bilakaera udalez udal:

8. Taula: EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera 2008-2018 eta 2016-2018 eta 2018ko euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa (%)

Erakunde kodea	Erakundea	Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa_2018 (%)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2016koarekiko (%)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2008koarekiko (%)	Biztanleria (2019/1/1)	Euskaldunen % (2016)
1002	Amurrioko Udala	2,49	30,2	1,2	10.419	33,69
1036	Laudioko Udala	2,72	-8,4	84,6	18.345	33,41
1051	Aguraingo Udala	1,22	31,0		5.296	33,17
1059	Vitoria-Gasteizko Udala	1,41	7,9	66,0	246.149	27,28
48001	Abadiñoako Udala	2,79	9,9	55,4	7.695	55,96
48002	Abanto-Zierbanako Udala	1,34	13,2	-11,1	9.476	30,46
48003	Amorebieta-Etxanoko Udala	3,50	64,9	84,5	19.119	56,16
48011	Arrigorriagako Udala	3,06	-2,2	-2,7	11.882	38,47
48013	Barakaldoko Udala	1,66	5,9	200,8	98.497	25,26
48015	Basauriko Udala	2,62	-16,7	-3,5	40.711	28,2
48016	Berangoko Udala	4,57	1,9	13,0	7.230	42,13
48017	Bermeoko Udala	2,39	16,6	-4,2	16.880	73,34
48020	Bilboko Udala	0,45	34,2	-17,8	343.430	28,98
48027	Durangoko Udala	3,29	8,8	54,9	29.436	52,91
48029	Etxebarriko Udala	6,29	6,9	164,2	11.338	35,35
48032	Elorrioko Udala	3,50	8,7	40,0	7.441	61,88
48034	Ermuko Udala	1,69	12,3	-2,8	16.039	33,55
48036	Galdakaoko Udala	3,17	4,7	3,8	29.389	43,14
48043	Gorlizko Udala	1,67	-8,5	-31,2	5.825	45,61
48044	Getxoko Udala	1,78	14,1	21,2	77.088	33,28
48045	Gueñesko Udala	2,37	26,3	60,5	6.564	30,31
48046	Gernika-Lumoko Udala	4,50	-1,3	-20,9	16.725	69,9
48054	Leioako Udala	2,33	2,1	-8,8	31.188	35,71
48057	Lekeitioko Udala	0,82	9,1	-12,7	7.246	81,71
48069	Mungiako Udala	2,28	-4,6	-42,7	17.349	56,06
48071	Muskizko Udala	2,54	-4,8	32,9	7.456	30,4
48073	Ondarroako Udala	1,42	-7,3	-19,0	8.590	78,51
48078	Portugaleteko Udala	1,53	-15,5	79,7	46.191	26,01
48080	Trapagarango Udala	2,82	-12,1	83,0	11.875	29,6
48082	Santurtziko Udala	1,95	20,1	67,1	45.690	26,18
48083	Ortuellako Udala	1,74	11,3	-0,1	8.350	28,13
48084	Sestaoko Udala	1,32	1,8	-8,6	27.146	24,32
48085	Sopelako Udala	3,71	1,0	65,7	12.947	46,83
48090	Balmasedako Udala	1,64	8,1	-13,8	7.595	27,77
48096	Zallako Udala	1,80	0,0	0,3	8.438	30,79


Erakunde kodea	Erakundea	Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa_2018 (%)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2016koarekiko (%)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2008koarekiko (%)	Biztanleria (2019/1/1)	Euskaldunen % (2016)
48901	Derioko Udala	4,27	11,2	-8,6	6.472	40,2
48902	Erandio Elizateko Udala	1,37	-20,5	-37,0	24.297	31,04
20009	Andoaingo Udala	2,55	12,8	11,0	14.945	56,33
20013	Aretxabaletako Udala	5,57	-1,0	-17,2	7.098	66,64
20017	Azkoitiko Udala	1,23	3,2	21,3	11.989	76,91
20018	Azpeitiko Udala	2,48	8,8	-18,2	15.055	83,69
20019	Beasaingo Udala	3,38	9,0	-41,1	13.969	59,05
20029	Debako Udala	2,95	10,4	17,3	5.445	76,98
20030	Eibarko Udala	3,25	7,9	-1,3	27.246	54,37
20032	Elgoibarko Udala	4,59	9,9	-22,2	11.585	62,27
20036	Hondarribiko Udala	1,95	-23,5	-38,2	16.937	63,71
20040	Hernaniko Udala	3,45	-9,4	-8,2	20.013	61,31
20045	Irungo Udala	2,53	14,7	21,9	59.899	40,61
20049	Lazkaoko Udala	1,21	2,2	159,1	5.549	64,67
20051	Legazpiko Udala	3,66	-10,4	16,6	8.430	60,77
20053	Lezoko Udala	3,39	-7,4	-7,5	6.102	60,29
20055	Arrasateko Udala	4,19	0,2	5,0	22.058	57,1
20056	Mutrikuko Udala	2,22	-5,4		5.334	81,08
20059	Oñatiko Udala	4,56	9,5	43,5	11.355	77,91
20061	Orioko Udala	3,53	0,5		6.061	76,68
20063	Oiartzungo Udala	2,54	6,7	14,4	10.351	76,25
20064	Pasaiaiko Udala	3,86	3,9	21,5	16.711	43,17
20067	Errenteriako Udala	1,65	-19,1	-12,4	40.141	42,91
20069	Donostiako Udala	1,13	-0,1	7,0	181.652	46,01
20071	Tolosako Udala	2,63	4,5	4,5	19.270	70,94
20072	Urnietako Udala	4,59	-5,5	10,5	6.190	60,39
20073	Usurbilgo Udala	2,32	3,7	-42,1	6.318	72,51
20074	Bergarako Udala	2,78	-6,8	-26,3	15.004	68,9
20075	Villabonako Udala	3,00	6,8	-17,9	5.906	67,68
20076	Ordiziako Udala	2,66	9,1	-15,4	9.970	60,75
20077	Urretxuko Udala	3,97	-3,0	66,7	6.802	59,97
20079	Zarauzko Udala	4,57	4,3	99,8	23.301	74,14
20080	Zumarragako Udala	3,10	-5,5	5,7	9.767	51,06
20081	Zumaiaiko Udala	2,23	9,9	4,8	9.825	73,81
20902	Lasarte-Oriako Udala	5,12	10,2	33,3	18.825	45,37
20903	Astigarragako Udala	2,44	2,7		6.180	64,74

5. irudia. Udaletan euskara aurrekontuak izandako 2016-2018 bilakaera (%) eta aurrekontu osoarekiko euskara aurrekontuak duen %, udalerria EAEko biztanleria euskaldunaren batez bestekoaren (%42,2) gainerik edo azpitik dagoen kontuan hartuta.



Iturria: Siadeco, 2019.


6. irudia. Udaletan euskara aurrekontuak izandako 2008-2018 bilakaera (%) (2008-2018) eta aurrekontu osoarekiko euskara aurrekontuak duen %, udalerria EAEko biztanleria euskaldunaren batez bestekoaren (%42,2) gainerik edo azpitik dagoen kontuan hartuta



Iturria: Siadeco, 2019.

Hiriburuei dagokienez, 2018an Bilboko Udalaren gorakada da nabarmentzekoa: %34koa. Gasteizek ere gora egin du, %8. Donostiako Udalak, berriz, jaitsi egin du zertxobait euskara aurrekontua 2018an, %0,1. Begirada luzeagoarekin hartuta, hau da joera: Gasteizek epealdi guztietan igo du aurrekontua, 2012an izan ezik; Bilbok 2010ean, 2012an eta 2014an jaitsi zuen, eta besteetan igo; eta Donostiak, 2012an, 2016an eta 2018an jaitsi —azken bi aldietako jaitsierak %2tik beherakoak izan dira—.

7. irudia: Udaletako euskara aurrekontu likidatuaren igoera-jaitsiera indizearen (%) bilakaera, lurraldeari jarraituz (2006-2018)



Iturria: Siadeco, 2019.


2.4.4. Euskara aurrekontuek herri administrazioen guztirako aurrekontuen parean izandako bilakaera

Herri administrazio guztien aurrekontu likidatuaren baturak

Atal honetan alderaketa bat egin da: herri administrazioen aurrekontu orokorraren bilakaera eta euskara aurrekontuena. Oro har, 2014ko salbuespena kenduta, hau da joera: igoera garaietan, aurrekontu orokorra baino gutxiago igotzea euskara arlokoa; eta jaitsiera dagoenean, orokorra baino gehiago murriztea.

- 2006tik 2008ra, aurrekontu osoaren igoera baino apalagoa izan zen euskara arlokoa: 5,7 puntu.
- 2008tik 2010era, diferentzia areagotu egin zen: erakundeen aurrekontuek goranzkoari eutsi zioten, baina euskarakoek, ez. 15,3 puntuko diferentzia.
- 2010-2012 epealdian, beheranzkoa agertu zen bi aurrekontuetan, baina ez neurri berean: aurrekontu orokorren jaitsiera halako bi izan zen euskararen esparrukoena, 6 puntu gehiago.
- 2012tik 2014rako tartean, salbuespena: aurrekontu orokorrek beherantz jarraitu zuten, baina bilakaera positiboa izan zuten euskara arlokoek. 3,7 puntuko aldea izan zen.
- 2014tik 2016ra, goranzkoa agertu zen bi aurrekontuetan. Proporzioan, handiagoa zen aurrekontu orokorraren igoera. 1,1 puntuko diferentzia.
- 2016tik 2018ra, igoera sendoagoa izan dute aurrekontuek, baina –apalago bada ere– errepikatu egin da joera: euskara arloko aurrekontua baino zertxobait gehiago igo da aurrekontu orokorra, 0,8 puntu gehiago.

8. irudia: herri administrazioen aurrekontu likidatu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren igoera-jaitsiera indizearen (%) bilakaera (2006-2018)




Iturria: Siadeco, 2019.

Eusko Jaurlaritza

Hamabi urteko bilakaera aztertuz gero, agerikoa da Eusko Jaurlaritzan pisu erlatiboa galdu duela euskara aurrekontuak: aurrekontu osoak gora egitean, gutxiago igo da euskararen arlokoa, eta orokorrak behera egin duenean, areago jaitsi da euskarakoa. Salbuespena 2012-2014 aldian gertatu zen, gobernuaren aurrekontu orokorra jaitsi egin zelako, eta euskararen arlokoa, igo. Aurkakoa gertatu zen 2014-2016an: aurrekontu orokorra igo, eta euskara arlokoa jaitsi. 2016-2018 epealdian joera nagusia errepikatu da: euskara aurrekontua areagotu da, baina aurrekontu orokorra baino hein txikiagoan. Aztertutako epealdi osoko diferentziarik txikiena da 2018koa, nolana ere.

9. irudia: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren igoera-jaitsiera indizearen (%) bilakaera (2006-2018)



Iturria: Siadeco, 2019.

Foru aldundiak

Euskara aurrekontuek aurrekontu osoaren parean izandako bilakaera aztertuta, aldeak daude hiru diputazioen artean:

- Azken epealdian, 2016 eta 2018 artekoan, hiru diputazioetan egin du gora euskara aurrekontuak, baina igoera hori aurrekontu orokorrek izandako bilakaerarekin alderatzerakoan joera desberdinak antzematen dira: Araba eta Bizkaiko Foru Aldundietan, euskara aurrekontuaren igoera (%7,1 eta %2,3 hurrenez hurren), erakundearen aurrekontu orokorra baino apalagoa izan da (%15,0 eta %7,3 hurrenez hurren). Gipuzkoako Foru Aldundian, aldiz, aurrekontu orokorrak behera egin du %2,3, eta euskarakoak gora ia %10.
- Azterketaaldi osoari erreparatuta, badira gorabeherak. Abiapuntua (2006) eta azken datua (2018) alderatuta, hau da emaitza: Araban, %28 areagotu da aurrekontu orokorra, eta euskara arlokoa, %101; Gipuzkoan, %4 handiagoa da diputazioaren aurrekontua, eta euskara esparrukoa, %25; eta Bizkaian, aurrekontu orokorra %15 igo arren, %8,5 apalagoa da euskarari dagokiona.

Udalak eta hiriburuak

5.000 biztanle baino gehiagoko udalen kasuan —hiriburuak kontuan hartu gabe—, errepikatu egin da joera orokorra: aurrekontua %5 igo da oro har, eta euskara arlokoa, %3. Hala ere, azterketa zabalagoa egiten bada, nabari da udalek beste jokabide bat ere izan dutela aldi gehienetan: proportzioan aurrekontu orokorra baino gehiago igo dute euskarari dagokiona, eta aurrekontuak jaitsi direnean, txikiagoa izan da euskara arloko murrizketa —2008-2010 eta 2016-2018 epealdiak dira salbuespenak—. Horrek ekarri du proportzioan udalen aurrekontuan pisua irabazi duela euskarak urteotan.

Hiriburuei dagokienez, Bilbok eta Gasteizek hautsi dituzte joera orokorrak 2016-2018 epealdian: aurrekontu orokorra baino nabarmen gehiago igo dituzte euskarari dagozkionak —Bilbokoa da igoerarik handiena: aurrekontua %12 handitu da, eta euskarari dagokiona, %34—. Donostiak, berriz, 2016an baino aurrekontu txikiagoa izan du 2018an, %11 txikiagoa, eta euskararena apenas jaitsi du (%0,1). Azterketaaldi osoari dagokionez, bi udaletan irabazi du pisua euskara aurrekontuak: Gasteizen, aurrekontu orokorra %9 igo da, eta euskarakoa, %88; eta Donostian, orokorra %11 eta euskarakoa %29. Bilbon, berriz, aurrekontu orokorra %9 hazi da, eta euskarakoa, %5.

Aurrekontu osoa eta euskara aurrekontuaren datu zehatzen bilakaera, 2006-2018

9. taula: Erakundeen aurrekontu osoen eta euskara aurrekontu likidatuen bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraituz

Erakunde mota	Aurrekontu likidatua	2006		2008		2010		2012		2014		2016		2018	
		€		€	2006-2008 bilakaera (%)	€	2008-2010 bilakaera (%)	€	2010-2012 bilakaera (%)	€	2012-2014 bilakaera (%)	€	2014-2016 bilakaera (%)	€	2016-2018 bilakaera (%)
Udalak	Guztira	1.464.583.886		1.630.816.711	11,4	1.669.049.133	2,3	1.385.048.698	-17,0	1.375.708.425	-0,7	1.385.483.134	0,7	1.454.177.806	5,0
	Euskarakoa	27.712.865		33.644.477	21,4	31.725.090	-5,7	31.464.309	-0,8	32.663.087	3,8	37.181.181	13,8	38.212.933	2,8
Arabakoak	Guztira	48.263.127		44.410.346	-8,0	46.680.959	5,1	33.258.893	-28,8	40.864.357	22,9	41.497.799	1,6	41.686.859	0,5
	Euskarakoa	707.613		613.699	-13,3	723.318	17,9	708.885	-2,0	664.789	-6,2	966.040	45,3	995.785	3,1
Bizkaikoak	Guztira	819.205.219		934.776.064	14,1	957.941.648	2,5	795.396.018	-17,0	757.504.924	-4,8	764.393.175	0,9	803.712.670	5,1
	Euskarakoa	13.316.110		15.237.992	14,4	14.291.832	-6,2	15.147.026	6,0	15.512.271	2,4	17.619.698	13,6	18.280.963	3,8
Gipuzkoak	Guztira	597.115.540		651.630.301	9,1	664.426.526	2,0	556.393.787	-16,3	577.339.144	3,8	579.592.159	0,4	608.778.277	5,0
	Euskarakoa	13.689.142		17.792.786	30,0	16.709.940	-6,1	15.608.398	-6,6	16.486.027	5,6	18.595.443	12,8	18.936.185	1,8
Hiriburuak	Guztira	1.023.269.625		1.222.722.235	19,5	1.361.333.120	11,3	1.048.409.231	-23,0	1.155.615.439	10,2	1.094.278.134	-5,3	1.118.077.217	2,2
	Euskarakoa	7.060.243		8.493.684	20,3	9.031.339	6,3	7.630.391	-15,5	8.638.960	13,2	9.169.887	6,1	10.122.526	10,4
Gasteizko Udala	Guztira	319.668.271		405.128.870	26,7	438.193.164	8,2	309.218.750	-29,4	346.186.397	12,0	346.315.112	0,0	347.717.879	0,41
	Euskarakoa	2.602.848		2.946.925	13,2	3.454.521	17,2	3.075.233	-11,0	3.971.244	29,1	4.534.430	14,2	4.893.342	7,9
Bilboko Udala	Guztira	474.718.244		543.300.000	14,5	589.418.636	8,5	472.200.000	-19,9	526.991.890	11,6	461.091.119	-12,5	515.701.607	11,8
	Euskarakoa	2.228.239		2.852.119	28,0	2.779.990	-2,5	1.928.969	-30,6	1.733.113	-10,2	1.748.189	0,9	2.345.646	34,2
Donostiako Udala	Guztira	228.883.110		274.293.365	19,8	333.721.320	21,7	266.990.481	-20,0	282.437.152	5,8	286.871.903	1,6	254.657.732	-11,3
	Euskarakoa	2.229.156		2.694.640	20,9	2.796.828	3,8	2.626.189	-6,1	2.934.603	11,7	2.887.267	-1,6	2.883.538	-0,1
Foru aldundiak	Guztira	2.505.421.545		3.005.037.376	19,9	3.121.722.809	3,9	2.744.590.557	-12,1	2.616.316.872	-4,7	2.700.258.827	3,2	2.851.310.275	5,6
	Euskarakoa	15.961.175		19.926.465	24,8	18.131.469	-9,0	17.507.814	-3,4	15.592.318	-10,9	16.789.790	7,7	17.738.223	-1,1
Arabako F.A.	Guztira	376.235.130		474.858.316	26,2	446.461.983	-6,0	394.996.501	-11,5	403.288.655	2,1	418.851.941	3,9	481.565.396	15,0
	Euskarakoa	1.219.385		2.039.854	67,3	2.333.221	14,4	1.670.917	-28,4	1.910.409	14,3	2.290.182	19,9	2.452.721	7,1
Bizkaiko F.A.	Guztira	1.368.591.426		1.730.768.708	26,5	1.764.609.826	2,0	1.602.611.726	-9,2	1.454.386.247	-9,3	1.469.114.903	1,0	1.575.821.351	7,3
	Euskarakoa	9.374.277		10.785.052	15,1	9.641.826	-10,6	10.408.787	8,0	8.259.514	-20,7	8.390.900	1,6	8.580.158	2,3
Gipuzkoako F.A.	Guztira	760.594.989		799.410.352	5,1	910.651.000	13,9	746.982.329	-18,0	758.641.970	1,6	812.291.983	7,1	793.923.527	-2,3
	Euskarakoa	5.367.513		7.101.559	32,3	6.156.422	-13,3	5.428.110	-11,8	5.422.395	-0,1	6.108.708	12,7	6.705.344	9,8
Eusko Jaurlaritza	Guztira	7.770.938.413		9.317.300.321	19,9	10.327.556.416	10,8	10.246.437.704	-0,8	10.053.537.686	-1,9	10.364.638.886	3,1	11.317.545.823	9,2
	Euskarakoa	106.074.632		115.404.359	8,8	106.785.965	-7,5	88.598.386	-17,0	91.443.891	3,2	86.975.067	-4,9	94.360.173	8,5
GUZTIRA	Guztira	12.764.213.469		15.175.876.643	18,9	16.479.661.478	8,6	15.424.486.189	-6,4	15.201.178.422	-1,5	15.544.658.981	2,3	16.741.111.121	7,7
	Euskarakoa	156.808.915		177.468.985	13,2	165.673.863	-6,7	145.200.899	-12,4	148.338.256	2,2	150.115.925	1,2	160.433.855	6,9

Iturria: Siadeco, 2019.


2.5. Herri administrazioen euskara aurrekontuen ratioak, 2018

2.5.1. Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontua, 2018

EAEko herri administrazioek biztanle bakoitzeko 73 euro ipini dituzte euskararen esparrurako (73,32). 2018ko aurrekontu likidatuekin kalkulatu da ratio hori.

- Eusko Jaurlaritzak 43,13 euro kudeatu ditu biztanle bakoitzeko, diruaren hamarretik sei ia.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalek, 32,12 euro kudeatu dituzte biztanle bakoitzeko, baina alde handia dago herrialde batetik bestera. Gipuzkoakoek nabarmen diru gehiago jarri dute euskararen arlorako —39,98 euro biztanle bakoitzeko—; atzerago daude Arabako udalak (29,24 euro) eta Bizkaikoak (26,80 euro).
- Hiriburuetako udalei dagokienez, alde nabarmenak daude. Gasteizko Udalak du aurrekontu ratorik handiena —19,88 euro biztanleko—, eta bigarren dago Donostiako Udala (15,87 euro). Askoz atzerago dago Bilboko Udala: 6,83 euro jarri ditu biztanleko.
- Foru aldundiei dagokienez, 6-9 euro artean daude ratioak. Gipuzkoako Diputazioak du handiena (9,35 euro), eta atzerago daude Bizkaikoa (7,51 euro) eta Arabakoa (7,48).

10. irudia: Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontua 2018an, erakunde motari jarraikiz (€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2019.

2.5.2. Euskarara bideratutako gastuaren pisu erlatiboa, 2018

EAEko erakundeen aurrekontu likidatuekin kalkulatu da zenbat den euskarari eskainitako batez besteko ehunekoa: %1 da 2018an. Badaude aldeak erakunde esparru batetik bestera. Udaletan du pisurik handiena euskara aurrekontuak: %2,6. Atzerago daude hiriburuetako udalak (%0,9), Eusko Jaurlaritza (%0,8) eta foru aldundiak (%0,6).

Lurraldearen arabera begiratuta, Gipuzkoako udaletan dauka pisu erlatiborik handiena euskarak: aurrekontuaren %3 bideratu dute arlo horretara. Bizkaiko eta Arabako udaletan pisu bera du: %2 pasatxo.

Hiriburuen kasuan, Gasteizko Udala dago buruan (%1,4), eta Donostia atzeraxeago (%1,1). Koska dago Bilboko Udalera: %0,5 jarri du hark.


10. taula: Aurrekontu likidatu osoa, euskara aurrekontua eta euskara aurrekontuaren pisu erlatiboc (2018)

Erakunde mota	Aurrekontua 2018		Euskara aurrekontuaren PISU ERLATIBOA 2018 (%)
	Aurrekontu likidatua GUZTIRA	EUSKARA aurrekontu likidatua	
Udalak	1.454.177.806	38.212.933	2,6
Hiriburuak	1.118.077.217	10.122.526	0,9
Foru aldundiak	2.851.310.275	17.738.223	0,6
Eusko Jaurlaritza*	11.317.545.823	94.360.173	0,8
GUZTIRA	16.741.111.121	160.433.855	1,0

Iturria: Siadeco, 2019.

*EJ aurrekontu likidatua: EAEko Administrazio Orokorreko onartutako obligazio fasean

11. irudia: Euskara aurrekontuaren aurrekontu osoarekiko pisu erlatiboa 2018an, erakunde motari jarraikiz (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

2.6. Euskara aurrekontuen ratioen bilakaera, 2006-2018

2.6.1. Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontuaren bilakaera

Biztanle bakoitzeko ia 73,32 euro bideratu dituzte erakundeek hizkuntza normalizazioaren arlora 2018an. Hamabi urteko bilakaerari erreparatuta, kopuru handiagoak izan ziren 2008an (88 euro biztanleko), eta behea 2012an jo zuen biztanleko aurrekontuak, 66,1 euroekin. Gorantz ari da harrezkero, eta 2008ko datuaren ondoren, onenetan bigarrena da 2018koa.

Ez da joera berbera erakunde guztiena. Eusko Jaurlaritza, adibidez, 2006-2010eko datuen azpitik dago oraindik, nahiz eta aurrekontua areagotu 2016tik 2018ra. 2008an izan zuen kopururik handiena (61 euro), eta 2016an txikiena (39 euro). 2018an 43 euro pasatxo jarri ditu biztanle bakoitzeko.

Udalek, berriz, aztertutako epealdi osoko aurrekonturik handiena bideratu dute 2018an: 32 euro. Bizkaiko eta Arabako udalek jarri dute inoiz baino diru gehiago; Gipuzkoakoek, 2008ko markaren ondoren, diru gehieneko urteetan bigarrena izan dute 2018a —aurrekontu ratorik handiena herrialde horretako udalek dute—.

Hiriburuetan ere berdin, biztanle bakoitzeko aurrekonturik handiena 2018koa izan da: 13 euro pasa. Gasteizko Udalaren ekarpena da handiena proportzioan (20 euro), eta hark jarri du inoiz baino gehiago. Bilboko Udalak 2010az geroztik izandako ratorik handiena du, eta Donostiakoak apur bat jaitsi du egin du 2016tik 2018ra.

Foru aldundiei dagokienez, egonkorrago dago biztanleko aurrekontua, 2006ko datua baino gorago, baina 2008-2010ekoen azpitik. Bizkaiko Foru Aldundiak zertxobait egin du gora 2016rekiko, oraindik 2006-2012 epealdiko ratiotara iritsi ez den arren; Arabak, berriz, aurreko neurraldietan baino diru gehiago jarri du biztanleko 2018an; eta Gipuzkoak igo egin du 2016tik 2018ra, eta 2008ko datuaren ondoren, kopururik handienetan bigarrena da 2018koa. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da biztanle bakoitzeko euskara aurrekonturik handiena.

11. taula: Biztanle bakoitzeko euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraikiz

Erakunde mota	Euskara aurrekontua biztanleko						
	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Udalak	23,7	29,5	27,1	26,7	27,6	31,40	32,12
Arabakoak	25,0	21,7	25,4	24,8	19,6	28,40	29,24
Bizkaikoak	19,0	22,5	20,9	22,0	22,7	25,90	26,80
Gipuzkoakoak	31,6	40,9	36,6	33,9	35,3	39,50	39,98
Hirburuak	9,3	11,5	11,6	9,8	11,3	12,00	13,13
Gasteizko Udala	11,4	12,8	14,5	12,7	16,6	18,70	19,88
Bilboko Udala	6,2	8,3	7,9	5,5	5,0	5,10	6,83
Donostiako Udala	12,4	14,9	15,1	14,1	16,3	16,00	15,87
Foru aldundiak	7,6	9,4	8,4	8,0	7,7	7,70	8,11
Arabako F.A.	4,0	6,6	7,4	5,2	6,0	7,10	7,48
Bizkaiko F.A.	8,3	9,6	8,4	9,0	7,2	7,40	7,51
Gipuzkoako F.A.	8,0	10,5	8,8	7,6	7,7	8,60	9,35
Eusko Jaurlaritza	49,8	61,3	46,4	40,4	42,1	39,90	43,13
GUZTIRA	71,8	88,0	72,2	66,1	68,3	69,00	73,32


Iturria: Siadeco, 2019.

2.6.2. Euskarara bideratutako gastu erlatiboaren bilakaera

Euskara aurrekontu likidatuak %1eko pisua dauka aurrekontu orokorretan batez beste. Egonkor dago 2010az geroztik —2012an %0,9 izan zen—. Pisu erlatiboa handixeagoa izan zen 2006-2008an, %1,2koa.

Datu orokor horien azpian, joera desberdinak. Batetik, udalak: haietan du pisurik handiena euskara arloak —2018an, %2,6, 2016an baino hamarren bat gutxiago; datu hori kenduta, pisu erlatibo handieneko urteetan bigarrena da 2018a—. Hiriburuetako udaletan inoiz baino pisu erlatibo handiagoa izan du euskarak 2018ko aurrekontuetan. Diputazioetan eta Jaurlaritzan, berriz, ez da joera hori ageri: Jaurlaritzan, 2016ko eta 2018ko ehunekoak dira neurraldi guztietako baxuenak, eta aldundietan egonkor dago ehunekoa urteetan.

12. irudia: Euskara aurrekontuaren pisu erlatiboaren (%) bilakaera, erakunde motari jarraikiz (2006-2018)



Iturria: Siadeco, 2019.

12. taula: Euskara aurrekontuaren ehunekoa (2006-2018 bilakaera), erakunde motari jarraikiz

Erakunde mota	Euskara aurrekontuaren ehunekoa						
	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Udalak	1,9	2,1	1,9	2,3	2,4	2,7	2,6
Arabakoak	1,5	1,4	1,6	2,1	1,6	2,3	2,4
Bizkaikoak	1,6	1,6	1,5	1,9	2,1	2,3	2,3
Gipuzkoakoak	2,3	2,7	2,5	2,8	2,9	3,2	3,1
Hiriburuak	0,7	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8	0,9
Gasteizko Udala	0,8	0,7	0,8	1,0	1,2	1,3	1,4
Bilboko Udala	0,5	0,5	0,5	0,4	0,3	0,4	0,5
Donostiako Udala	1,0	1,0	0,8	1,0	1,0	1,0	1,1
Foru aldundiak	0,6	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6
Arabako F.A.	0,3	0,4	0,5	0,4	0,5	0,5	0,5
Bizkaiko F.A.	0,7	0,6	0,6	0,7	0,6	0,6	0,5
Gipuzkoako F.A.	0,7	0,9	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8
Eusko Jaurlaritza	1,4	1,2	1,0	0,9	0,9	0,8	0,8
GUZTIRA	1,2	1,2	1,0	0,9	1,0	1,0	1,0

Iturria: Siadeco, 2019.

2.7. Euskararako dirulaguntzen aurrekontuak, 2018

Herri erakundeek, dirulaguntzatan, 81,5 milioi euro likidatu zituzten 2018an euskara sustatzeko programak eta planak egiteko. Hots, helburu horretara bideratu zuten euskara aurrekontu osoaren erdia pasatxo (%50,8), eta 37,2 euro biztanleko.

Eusko Jaurlaritza

Erkidegoan euskara arloko dirulaguntzetako kopuruaren ia bi heren, %64,4 (52,5 milioi euro), Eusko Jaurlaritzak emandakoa da. Eusko Jaurlaritzak euskarara bideratutako aurrekontuaren erdia baino gehiago (%56) dirulaguntzetara joan da. 24 euro dira biztanleko.

Foru aldundiak

Hiru diputazioen artean 10,9 milioi euro bideratu dituzte euskara arloko dirulaguntzetara; erkidegoan emandako laguntzen %13,3 dira aldundienak. Diputazioen euskara aurrekontuarekin lotuta, aurrekontu osoaren %61,3 jarri dute laguntzetarako.

Hiru aldundiek ez dituzte datu berberak, nolana ere. Proporzioan, Gipuzkoakoak bideratu du diru gehien: bai biztanleko (6,41 euro), bai euskara aurrekontu osoarekiko (%68,6). Ondoren dago Bizkaiko Foru Aldundia —aurrekontuaren %62,2 eta 4,67 euro biztanleko—, eta Arabakoa azkenik —aurrekontuaren %38,2 eta 2,85 euro biztanleko—.

Udalak

5.000 biztanle baino gehiagoko udalek 15,8 milioi euro eman dituzte dirulaguntzetan; alegia, udalek euskararako duten aurrekontuaren %41,4, eta 13,28 euro biztanleko. Erkidegoan dirulaguntzetan emandako diruaren %19,4 ipini dute udal horiek.

Proporzioan, Gipuzkoako udalek jarri dute diru gehien biztanleko: 15,99 euro. Atzerago daude Bizkaikoak (11,72 euro) eta Arabakoak (6,77 euro).

Hiriburuak


Hiru hiriburuen artean 2,3 milioi euro eman dituzte 2018an euskara arloko dirulaguntzetan. Euskara aurrekontuaren %23,2 erabili dute laguntzetarako hiruren artean; biztanleko, 3,04 euro. Proporzioan, biztanleko laguntza handiena Donostiako Udalak eman du (3,78 euro), eta Gasteizkoak ondoren (3,17 euro); atzerago dago Bilboko Udala (2,55 euro).

13. taula: Euskararako dirulaguntzen aurrekontuak, erakunde motari jarraikiz (2018)

Erakunde mota	Dirulaguntzen aurrekontua 2018		€ biztanleko	Euskara aurrekontu likidatu osoarekiko %
	€	%		
Eusko Jaurlaritza	52.472.306	64,4	23,98	55,6
Foru aldundiak	10.871.841	13,3	4,97	61,3
Arabako F.A.	935.750	1,2	2,85	38,2
Bizkaiko F.A.	5.338.242	6,6	4,67	62,2
Gipuzkoako F.A.	4.597.489	5,6	6,41	68,6
Udalak	15.803.291	19,4	13,28	41,4
Arabakoak	230.610	0,3	6,77	23,2
Bizkaikoak	7.997.674	9,8	11,72	43,8
Gipuzkoakoak	7.575.008	9,3	15,99	40,0
Hiriburuak	2.343.442	2,9	3,04	23,2
Gasteizko Udala	779.690	0,1	3,17	15,9
Bilboko Udala	876.518	1,1	2,55	37,4
Donostiako Udala	687.234	0,8	3,78	23,8
GUZTIRA	81.490.880	100,0	37,24	50,8

Iturria: Siadeco, 2019.

13. irudia: Euskararako dirulaguntzak 2018an, erakunde motari jarraikiz (€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2019.




2.8. Euskararako dirulaguntzen bilakaera, 2012-2018

Euskararen arloko dirulaguntzetara bideratutako diru kopuruak zer eboluzio izan duen aztertutik, nabari da 2016an izandako igoera sendotu egin dela 2018an: 2014tik 2016ra %2,6 igo ziren dirulaguntzak, eta 2016tik 2018ra, %7. Areago, igoera horrekin 2012ko kopuruaren gainetik dago 2018koa. Biztanleko aurrekontua ere handiena da aztertutako epealdian (37,24 euro), baina ez aurrekontutik dirulaguntzetara bideratutako heina (%50,8), 2012koa baino apalagoa baita.

Erakunde esparru batzuetatik besteetara badira gorabeherak. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak 2018an jarri du laguntzetarako diru gehien, aztertutako epealdian betiere: 2016tik 2018ra, %12,6ko igoera. 2012ko kopuruaren zerbeit gainetik jarri da horrela —urte hartan, euskara aurrekontuaren zati handiagoa bideratu zuen dirulaguntzetara—. Gorakada ageri da hiriburuetakoko udaletan ere: %16,7 gehiago bi urtean, eta aztertutako epealdiko kopururik handiena dirulaguntzetan. Bilboko Udalak egin du jauzirik handiena. Aldundien kasuan ere igoera ageri da 2016tik 2018ra, baina txikiagoa: %2,9koa. Batez besteko horren azpian, bi joera daude. Batetik, Arabako Foru Aldundiaren murrizketarekin: 2016an baino diru gutxiago bideratu du dirulaguntzetara, ia %13 gutxiago. Aldiz, Bizkaiko Foru Aldundiak %0,2ko igoera egin du 2016tik 2018ra, eta Gipuzkoakoak, %10ekoa.

Txanponaren beste aldea 5.000 biztanlez gorako gainerako udaletan dago: %7ko murrizketa 2016tik 2018ra. Kontuan izatekoa da, hala ere, 2016an igoera nabarmena izan zutela udalen dirulaguntzek (%36), eta jaitsiera izan arren, 2014ko eta 2012ko kopuruetatik gorago daudela 2018koak, aldearekin.

14. irudia: biztanle bakoitzeko emandako dirulaguntzen bilakaera (2012-2018) erakunde motari jarraikiz (€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2019.

14. taula: euskararako dirulaguntzen bilakaera (2012-2018), erakunde motari jarraikiz

Erakunde mota	2012			2014			2016			2018			Euskarako dirulaguntzen igoera-jaitziera indizea (%)	
	Aurre-kontua (€)	Aurrekon-tua biz-tanleko	Eusk. Aurre-kon. %	Aurre-kontua (€)	Aurrekon-tua biz-tanleko	Eusk. Aurre-kon. %	Aurre-kontua (€)	Aurrekon-tua biz-tanleko	Eusk. Aurre-kon. %	Aurre-kontua (€)	Aurrekon-tuc biztanleko	Eusk. Aurre-kon. %	2016-2018	2012-2018
Udalak	12.518.176	10,62	39,8	13.053.843	11,02	40	17.017.220	14,36	45,8	15.803.291	13,28	41,4	-7,1	26,2
Arabakoak	214.759	7,51	30,3	118.074	3,49	17,8	279.279	8,22	28,9	230.610	6,77	23,2	-17,4	7,4
Bizkaikoak	6.459.279	9,37	42,6	6.503.431	9,52	41,9	8.602.430	12,64	48,8	7.997.674	11,72	43,7	-7,0	23,8
Gipuzkoakoak	5.844.138	12,7	37,4	6.432.338	13,76	39	8.135.511	17,29	43,8	7.575.008	15,99	40,0	-6,9	29,6
Hiriburuak	1.963.775	2,52	25,7	1.962.460	2,57	22,7	2.008.204	2,62	21,9	2.343.442	3,04	23,2	16,7	19,3
Gasteizko Udala	578.230	2,39	18,8	645.857	2,7	16,3	746.415	3,08	16,5	779.690	3,17	15,9	4,5	34,8
Bilboko Udala	776.485	2,21	40,3	631.750	1,83	36,5	657.402	1,92	37,6	876.518	2,55	37,4	33,3	12,9
Donostiako Udala	609.060	3,27	23,2	684.853	3,8	23,3	604.387	3,35	20,9	687.234	3,78	23,8	13,7	12,8
Foru aldundiak	10.286.547	4,69	58,8	9.501.821	4,37	60,9	10.566.156	4,86	62,9	10.871.841	4,97	61,3	2,9	5,7
Arabako F.A.	679.200	2,11	40,7	823.000	2,57	43,1	1.070.693	3,31	46,8	935.750	2,85	38,2	-12,6	37,8
Bizkaiko F.A.	6.219.555	5,37	59,8	5.060.071	4,42	61,3	5.326.352	4,67	63,5	5.338.242	4,67	62,2	0,2	-14,2
Gipuzkoako F.A.	3.387.792	4,76	62,4	3.618.750	5,11	66,7	4.169.111	5,85	68,2	4.597.849	6,41	68,6	10,3	35,7
Eusko Jaurlaritza	52.236.331	23,82	56,1	49.738.086	22,89	51,9	46.591.171	21,41	53,6	52.472.306	23,98	55,6	12,6	0,5
GUZTIRA	77.004.829	35,11	51,5	74.256.210	34,17	48,6	76.182.751	35,01	50,7	81.490.880	37,24	50,8	7,0	5,8

Iturria: Siadeco, 2019.

2.9. Herri administrazioen arteko euskara arloko transferentziak

Eusko Jaurlaritzak udaletara eta hiriburuetara zuzendutako dirulaguntzak


965 mila euroren balioa dute Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko egitasmo eta programetarako 5.000 biztanlez gorako udalerrietara 2018an egindako transferentziek; hiru hiriburuetara, berriz, 177 mila euro bideratu ditu.

Aurreko kopuru horiei gehitu behar zaizkie Eusko Jaurlaritzak HABEren bitartez udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegi publikoei emandako diru laguntzak: 11,5 milioi euro. Kopuru hori Jaurlaritzaren aurrekontu gisa jaso da, eta ez da, beraz, udalek kudeatutako aurrekontu likidatuan sartu. Udal edo udal erakundeen menpeko euskaltegiak dituzten udalen kasuan, udalaren aurrekontu likidatuan sartu da udalak euskaltegiari egindako ekarpena; hau da, HABEtik eta matrikula sarreretatik lortutako diru sarrerez aparte, udalak euskaltegiaren finantzaketarako jarritako diru kopurua.

Foru aldundiek udal eta hiriburuetara zuzendutako dirulaguntzak

5.000 biztanle baino gehiagoko udalek, 793 mila euro inguru jaso dute diputazioetatik, eta hiriburuek, 83 mila euro inguru.

15. irudia: Erakunde esparruen arteko euskararako diru transferentziak (2018)



Iturria: Siadeco, 2019.

2.10. Eusko Jaurlaritzaren euskara arloko barne transferentziak

Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakunde autonomiadunen artean izandako diru transferentziak jasotzen dira atal honetan, horien arteko bikoizketen eragina kontuan hartzeko. Kasu honetan, diru horren azken kudeatzaile diren sailean edo erakundearen kontsolidatu dira kopuruak; alegia, bikoiztutako aurrekontuak doitzeko, transferentzia egin duenaren aurrekontuan egin dira kenketak.

HABE

Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik 35,9 milioi euro jaso ditu HABEK, 2018ko aurrekontu likidatuaren arabera.

Horretaz gain, HABEK ondoko zenbatekoak fakturatu dizkie Jaurlaritzaren beraren sailei edo menpeko erakundeei: HAEE/IVAPi, 3,6 milioi euro; Hezkuntza Sailari 580 mila euro; Segurtasun Sailari 544 mila euro; Arkautiko Akademiari 350 mila euro; Lana eta Justizia Sailari 225 mila euro eta Lanbideri 76 mila euro.

HAEE/IVAP

2012 urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Saitetako itzultzaileak IZO Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren barruan daude; ondorioz, itzulpenen eta berrikusketa lanen gastuak faktura bidez ordaintzen dizkiote Jaurlaritzaren sailek HAEE/IVAPi. Hortik datoz sail guztietatik egindako diru ekarpenak. Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailak jarritako diru kopurua nabarmen handiagoa da, (9,9 milioi euro), eta HAEE/IVAPen funtzionamendurako jarritakoak dira.

15. Taula: Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomoen arteko euskara arloko barne transferentziak (diru laguntzak eta fakturatutako zerbitzuak) (2018)


Erakunde-mota	Erakundea		Euskara aurrekontu likidatua	Jaurlaritzako beste sail edo erakunde autonomoei egindako ordainketak 2018			Kontsolidaziorako aurrekontua
				HABEra	HAEE/ IVAPera	Barne transferentziak GUZTIRA	
Saila	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	56.155.173,96	35.976.774,00	93.708,80	36.650.993,80	44.380.482,06
		Hezkuntza Sailburuordetza	24.876.301,90	580.511,00			
	Lehendakaritza		190.678,31		42.862,05	42.862,05	147.816,26
	Segurtasun Saila		92.437,40		70.042,12	70.042,12	22.395,28
	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila		90.957,55		27.209,00	27.209,00	63.748,55
	Osasun Saila		258.810,28		40.497,46	40.497,46	218.312,82
	Ogasuna eta Ekonomia Saila		90.770,30		26.028,22	26.028,22	64.742,08
	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila		118.445,96		57.298,27	57.298,27	61.147,69
	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saila		10.043.918,80		9.952.669,89	9.952.669,89	91.248,91
	Lana eta Justizia Saila		904.466,00	225.150,00	37.935,45	263.085,45	641.380,55
	Enplegu eta Gizarte Politika Saila		106.872,91		53.049,57	53.049,57	53.823,34
	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila		44.790,47		12.096,78	12.096,78	32.693,69
	GUZTIRA		86.045.160,21	30.912.964,00	11.213.022,06	42.296.987,06	43.748.173,15
	Erakunde autonomoak	HABE		41.318.360,00		1.091,75	1.091,75
HAEE/IVAP		9.750.476,00	3.600.000,00		3.600.000,00	6.150.476,00	
EUSTAT		128.465,69		9.149,63	9.149,63	119.316,06	
EMAKUNDE		46.565,26		21.639,01	21.639,01	24.926,25	
OSALAN		39.295,85		4.152,88	4.152,88	35.142,97	
Ertzaintza		1.766.766,93	894.340,00	141,36	894.481,36	872.285,57	
Lanbide		125.622,16	76.309,00	29.553,21	105.862,21	19.759,95	
Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua		15.069,37		6.485,18	6.485,18	8.584,19	
Lehiaren Euskal Agintaritza		41.390,55		6.768,24	6.768,24	34.622,31	
GUZTIRA		53.232.011,81	4.570.649,00	78.981,26	4.649.630,26	48.582.381,55	
EUSKO JAURLARITZAREN ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK GUZTIRA							94.360.173

Iturria: Siadeco 2019.

2.11. Udal eta hiriburuen finantzaketa iturriak

Udalek eta hiriburuak euskararen arloa destinatutako 48,3 miloi euroko aurrekontuaren %95,8 finantzatu dute udalek eurek 2018an; kopuru horretan sartua dago matrikula eta tasa bidez lortutako diru sarrerei dagokiena (%2,6). Ondorengoak dira gainerako iturriak: %2,4 Eusko Jaurlaritzatik dator eta %1,8 aldundietatik.

16. irudia: Udalen finantzaketa maila propioa (hiriburuak barne) (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

Udalak

5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek dagokienez, euskara aurrekontuaren %93 finantzatu dute udalek eurek, eta %2,5 da sarrera propioetatik jasotakoa (matrikulak, tasak...). Diru laguntzetatik dator %4,6: Jaurlaritzatik, %2,5; aldundietatik, %2,1. Herrialdekako datuak begiratuta, hara: diputazioaren laguntzak Bizkaiko udalen aurrekontuan du pisu handiagoa, eta Gipuzkoan txikiena; Eusko Jaurlaritzarenak, Araban handiena, eta Bizkaian txikiena.

Hiriburuak

Euskara aurrekontuaren zati handiagoa finantzatu dute hiriburuak udalek beren diru baliabideetatik; diru sarrera propioak aparte utzita: %94 —Gasteizek, %90,9; Bilbok, %95,8; Donostiak, %97,9—. Dirulaguntzen pisua gainerako udalengan baino nabarmen txikiagoa da hiriburuen kasuan: %2,6.

16. taula: Udaletako euskara aurrekontuen finantzaketa modua (2018)

Erakunde mota	Erakundeen dirulaguntzak						Euskara arloko diru sarrera propioak (tasak, matrikulak...)		Udal funtsetatik finantzatutakoa		Euskara aurrekontu likidatua GUZTIRA	
	Foru Aldundiko dirulaguntzak		Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak		Jasotako dirulaguntzak GUZTIRA		€	%	€	%	€	%
	€	%	€	%	€	%						
Udalak	792.807	2,1	964.957	2,5	1.757.763	4,6	936.466	2,5	35.518.704	93,0	38.212.933	100,0
Arabakoak	20.574	2,1	34.246	3,4	54.820	5,5	28.359	2,9	912.606	91,7	995.785	100,0
Bizkaikoak	523.688	2,9	367.697	2,0	891.384	4,9	425.282	2,3	16.964.297	92,8	18.280.963	100,0
Gipuzkoakoak	248.544	1,3	563.015	3,0	811.559	4,3	482.826	5,6	17.641.800	93,2	18.936.185	100,0
Hiriburuak	83.275	0,8	177.333	1,8	260.608	2,6	344.178	3,4	9.517.740	94,0	10.122.526	100,0
Gasteizko Udala	40.000	0,8	60.000	1,2	100.000	2,0	344.178	7,0	4.449.165	90,9	4.893.342	100,0
Bilboko Udala	43.275	1,8	55.520	2,4	98.794	4,2	0	-	2.246.852	95,8	2.345.646	100,0
Donostiako Udala	-	0,0	61.814	2,1	61.814	2,1	0	-	2.821.724	97,9	2.883.538	100,0
GUZTIRA	876.081	1,8	1.142.290	2,4	2.018.371	4,2	1.280.644	2,6	45.036.444	93,2	48.335.459	100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

2.12. Euskara gastuen izaera ekonomikoa

Orokorra

Guztirako euskara aurrekontu likidatuaren %79,4 osatu dute bi atalek: transferentzia arruntek (IV. kapitulua, %50,1) eta langileria gastuek (I. kapitulua, %29,3). Horiei batuz gero ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (II. Kapitulua, %19,4), euskara aurrekontua ia osatua legoke (%98,8).

Euskara aurrekontuaren kapitulukako banaketa ez dator bat erakunde publikoen aurrekontu orokorraren banaketarekin. Euskara aurrekontuetan nabarmen pisu handiagoa dute IV. kapituluak (transferentzia arruntak) eta I. kapituluak (langileria gastuak); pisu txikiagoa du, aldiz, II. kapituluak (ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak). Euskara aurrekontuetan apenas ageri dira VI. kapitulua (inbertsio errealak) eta VII. kapitulua (kapital transferentziak), eta ez dira ageri III. kapitulua (finantza gastuak) eta VIII. eta IX. kapituluak (finantza aktiboak eta pasiboak).

Eusko Jaurlaritza

94 milioi euro pasako euskara aurrekontuaren erdia baino gehiago (%55,6) dute IV. kapituluko ohiko transferentziek (52,5 milioi euro). Euskararen arloetako eta zerbitzuetako langileei dagokie gastuaren %32,7 (30,9 milioi), eta %10,9 dute bigarren kapituluko zerbitzu kontratazioek (10,3 milioi).

Foru aldundiak

Diputazioetan, antzeko pisua du IV. kapituluak (%54,6), eta txikiagoa da I. kapituluaren pisua (%22,5). Jaurlaritzaren aurrekontuaren aldean, proportzio handiagoa du II. kapituluak, ondasun eta zerbitzuen gastuarenak (%16,3), baita VII. kapituluak ere, kapital transferentzienak (%6,7).


Udalak

Dirulaguntzekin lotutako arloak, IV. kapituluak, pisu txikiagoa du udalen kasuan (%41,4). Aldiz, ondasun eta zerbitzuetako gastuek garrantzi handiagoa daukate (%34,2). Langile gastuek dute aurrekontuaren %24,4.

Hiriburuak

Berritasun bat badago hiriburuetako aurrekontuen kasuan: II. kapituluak du pisurik handiena, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (%48,4). Langileria gastua dago bigarren lekuan (%28,5), eta transferentzia arruntak gero (%23,2).

17. irudia: Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen aurrekontu likidatu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren kapituluko banaketa (%) (2018)



Iturria: Siadeco 2019.

17. taula: Erakundeen aurrekontu osoa eta euskararako likidatua, kapitulu ekonomikoei jarraikiz (2018)

Gastu mota	Aurre-kontu likidatua	Udalak		Hiriburuak		Foru aldundiak		Eusko Jaurlaritza		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
I. kap. Langileria gastuak	Guztira	453.631.125	31,2	369.413.763	33,0	379.917.383	13,3	2.043.783.910	18,1	3.246.746.180	19,4
	Euskarakoa	9.313.324	24,4	2.883.827	28,5	3.982.595	22,5	30.890.767	32,7	47.070.513	29,3
II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	Guztira	557.276.082	38,3	392.261.571	35,1	581.142.498	20,4	3.524.471.136	31,1	5.055.151.736	30,2
	Euskarakoa	13.085.175	34,2	4.895.257	48,4	2.883.786	16,3	10.316.376	10,9	31.180.595	19,4
III. kap. Finantza gastuak	Guztira	2.810.424	0,2	1.546.242	0,1	35.942.106	1,3	180.110.524	1,6	220.409.296	1,3
	Euskarakoa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
IV. kap. Transferentzia arruntak	Guztira	222.903.880	15,3	232.750.427	20,8	1.107.881.613	38,9	3.383.589.102	29,9	4.947.125.022	29,6
	Euskarakoa	15.803.291	41,4	2.343.442	23,2	9.682.513	54,6	52.472.306	55,6	80.301.551	50,1
GASTU ARRUNTAK	Guztira	1.236.621.511	85,0	995.972.002	89,1	2.104.884.049	73,8	9.131.954.672	80,7	13.469.432.235	80,5
	Euskarakoa	38.201.790	100,0	10.122.526	100,0	16.548.895	93,3	93.679.449	99,3	158.552.659	98,8
VI. kap. Inbertsio errealak	Guztira	165.388.855	11,4	82.334.902	7,4	253.424.824	8,9	178.621.628	1,6	679.770.209	4,1
	Euskarakoa	11.143	0,0	-	-	-	-	674.724	0,7	685.867	0,4
VII. kap. Kapital transferentziak	Guztira	12.105.303	0,8	19.572.784	1,8	155.801.959	5,5	694.347.198	6,1	881.827.244	5,3
	Euskarakoa	-	-	-	-	1.189.328	6,7	-	-	1.189.328	0,7
VIII. eta IX. kap. Finantza aktiboak eta pasiboak	Guztira	40.062.136	2,8	20.197.530	1,8	337.199.442	11,8	1.312.622.326	11,6	1.710.081.434	10,2
	Euskarakoa	-	-	-	-	-	-	6.000	-	6.000	0,0
KAPITAL GASTUAK	Guztira	217.566.291	15,0	122.105.216	10,9	746.426.225	26,2	2.185.591.152	19,3	3.271.678.887	19,5
	Euskarakoa	11.143	0,0	-	-	1.189.328	6,7	680.724	0,7	1.881.195	1,2
GUZTIRA	Guztira	1.454.177.806	100,0	1.118.077.217	100,0	2.851.310.275	100,0	11.317.545.823	100,0	16.741.111.121	100,0
	Euskarakoa	38.212.933	100,0	10.122.526	100,0	17.738.223	100,0	94.360.173	100,0	160.433.854	100,0

Iturria: Siadeco, 2019.


2.13. Euskara gastuen izaera ekonomikoaren bilakaera, 2006-2018

Guztirako aurrekontuak

2006tik 2008ra iguera nabarmena eduki zuten EAeko erakundeetako euskara aurrekontu likidatuek, eta beherantz hasi ziren hurrengo urteetan. 2014ko datuek erakutsi zuten galera eten zela, 2016koek berretsi, eta 2018koetan sendotu egin da iguera. Nolanahi ere, ez da 2010-2012ko kopuruetara iritsi aurrekontua.

2008-2012 epealdian behera egin zuten hiru kapitulu nagusiek; II. kapituluak 11,9 milioi murriztu zituzten; I. kapituluak, 9,8 milioi; eta IV. kapituluak, 9,1 milioi. 2012-2016 epealdian, berriz, gora egin zuten bi kapituluak: I. kapituluak, 3,4 milioi euro gehiago; II. ean, 2,2 milioi gehiago. 2016tik 2018ra, orokortua izan da iguera: kapitulu guztiek egin dute gora. Igoerarik handiena hiru arloketan: IV. eta VII. kapituluak (5,3 milioi euro), I. kapituluak (2,4 milioi) eta II. kapituluak (1,9 milioi).

18. irudia: EAeko herri administrazio guztien euskara aurrekontuaren kapituluakako gastuaren bilakaera, 2006-2018 (milioi €)




Iturria: Siadeco, 2019.

Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatuek behera egin zuten 2008tik 2012ra, eta, 2014ko igoeraren eta 2016ko jaitsieraren ondoren, igoera izan du 2018an, nahiz eta oraindik 2010eko eta aurreko urteetako kopuruen azpitik egon oraindik.

Kapitulu ekonomiko araberakoak, 2008tik 2012ra jaitsiera izan zuten hiru kapitulu nagusiek. 2012tik 2014ra gorakada iritsi zen berriro, 2016an jaitsiera, eta 2018an izan da igoera adierazgarriagoa. Hala ere, 2012 aurreko datuetatik behera daude pertsonaleko kapitulua, eta ondasun eta zerbitzuen gastuak; transferentzia ere bai, baina zenbateko handieneko urteetan bigarrena da 2018a.

19. irudia: Eusko Jaurlaritzako euskara aurrekontuaren kapituluko gastuaren bilakaera, 2006-2018 (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2019.

2016tik 2018ra, 7,4 milioi euroko igoera izan dute Eusko Jaurlaritzako euskara aurrekontuek. Kapitulu kapitulu begiratuta, nabari da transferentziek izan dutela igoerarik adierazgarriena (6,3 milioi euro), eta apalagoa langile gastuek (1,4 milioi). Igoera txikiagoa izan dute ondasun eta zerbitzuen gastuek (0,1) eta gainerako kapituluek (0,1)

Kopuru adierazgarrienak dituzten Jaurlaritza barruko Sail eta Erakundeen datuak aztertuz, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren euskara aurrekontua ia 7 milioi euro altuagoa (%14) izan zen 2018an 2016koaren aldean, eta HABE-ren aurrekontuak ia 5 milioi euro gora (%14). Hezkuntza Sailaren euskara aurrekontuak 800 mila euro gora (%3) azken neurraldi honetan. Kontrara, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saitetik HAEE/IVAP-era egindako transferentzia 800 mila euro txikiagoa izan da (%14) eta ondorioz, HAEE/IVAP-ek 500 mila euro gutxiago (%5) bideratu ditu euskararen sustapenera.

18. taula: Eusko Jaurlaritza: Sail eta erakunde autonomoen euskara aurrekontuak, kapituluaren arabera (2012-2014-2016-2018) (1/3)

Urtea	Erakundea	I. Kap. Langileria gastuak		II. Kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak		IV eta VII Kap. Transferentzia arruntak eta kapital transferentziak		Gainerako kapitulu ekonomikoak (III, VI; VIII eta IX)		GUZTIRA	
2012	Kultura Saila	2.438.684		1.154.441		45.195.946		209.053		48.998.124	
2014	Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.443.308	0,2	1.518.708	31,6	42.391.479	-6,2	625.180	199,05	46.978.675	-4,1
2016	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	2.583.005	5,7	1.576.301	3,8	44.537.341	5,1	564.487	-9,71	49.261.134	4,9
2018	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	2.823.075	9,3	1.281.800	-18,6	51.529.983	15,7	520.315	-7,8	56.155.174	14,0
2012	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	16.215.947		2.305.970		6.975.130		61.222		25.558.269	
2014	Hezkuntza Saila	20.707.102	27,7	1.964.345	-14,8	5.948.055	-14,7	67.394	10,08	28.686.896	12,2
2016	Hezkuntza Saila	18.256.598	-11,8	1.999.904	1,8	3.771.681	-36,6	8.868	-86,84	24.037.051	-16,2
2018	Hezkuntza Saila	19.142.470	4,9	2.263.075	13,2	3.452.981	-8,4	17.776	100,5	24.876.302	3,5
2012	HAE/IVAP	3.161.850		8.806.342		129.739		0		12.097.931	
2014	HAE/IVAP	3.714.881	17,5	8.808.790	0,0	174.990	34,9			12.698.661	5,0
2016	HAE-IVAP	4.083.303	9,9	6.116.608	-30,6	76.057	-56,5			10.275.968	-19,1
2018	HAE-IVAP	4.206.108	3,0	5.498.368	-10,1	46.000	-39,5			9.750.476	-5,1
2012	HABE	3.157.238		4.519.419		29.775.563		81.982		37.534.202	
2014	HABE	3.365.948	6,6	4.006.738	-11,3	30.280.328	1,7	5.051	-93,84	37.658.065	0,3
2016	HABE	3.517.533	4,5	4.120.092	2,8	28.686.455	-5,3	76.340	1.411,38	36.400.420	-3,3
2018	HABE	3.544.982	0,8	4.219.629	2,4	33.411.116	16,5	142.633	86,8	41.318.360	13,5
2012	Lehendakaritza	99.139		16.200		0				115.339	
2014	Lehendakaritza	110.788	11,8	32.892	103,0	28.500				172.180	49,3
2016	Lehendakaritza	111.401	0,6	30.218	-8,1	28.499	0,0			170.118	-1,2
2018	Lehendakaritza	112.542	1,0	78.136	158,6					190.678	12,1
2012	Herrizaingo Saila	68.031		28.257						96.288	
2014	Segurtasun Saila	48.945	-28,1	33.232	17,6					82.177	-14,7
2016	Segurtasun Saila	50.603	3,4	28.499	-14,2					79.102	-3,7
2018	Segurtasun Saila	54.335	7,4	38.102	33,7					92.437	16,9
2012	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	58.172		37.158						95.330	
2014	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	44.205	-24,0	100.582	170,7					144.787	51,9
2016	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	35.382	-20,0	75.357	-25,1					110.740	-23,5
2018	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	59.711	68,8	31.247	-58,5					90.958	-17,9
2018	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	31.116		13.675						44.790	

18. Taula: Eusko Jaurlaritza: Sail eta erakunde autonomoen euskara aurrekontuak, kapituluaren arabera (2012-2014-2016-2018) (2/3)

Urtea	Erakundea	I. Kap Langileria gastuak		II. Kap. Ondasun eta zerbizuetako gastu arruntak		IV eta VII Kap. Transferentzia arruntak eta kapital transferentziak		Gainerako kapitulu ekonomikoak (III, VI; VIII eta IX)	GUZTIRA	
2012	Osasun eta Kontsumo Saila	218.713		22.327					241.040	
2014	Osasun Saila	219.436	0,3	36.819	64,9				256.254	6,3
2016	Osasun Saila	229.275	4,5	48.780	32,5				278.055	8,5
2018	Osasun Saila	178.499	-22,1	80.312	64,6				258.810	-6,9
2012	Eustat	38.491		24.415					62.906	
2014	Eustat	50.144	30,3	8.493	-65,2				58.638	-6,8
2016	Eustat	52.641	5,0	6.711	-21,0				59.352	1,2
2018	Eustat	53.263	1,2	75.203	1.020,6				128.466	116,4
2012	Emakunde	16.195		20.835					37.031	
2014	Emakunde	0	-100,0	30.894	48,3				30.894	-16,6
2016	Emakunde			25.868	-16,3				25.868	-16,3
2018	Emakunde			46.565	80,0				46.565	80,0
2012	Osalan			16.550					16.550	
2014	Osalan			12.098	-26,9				12.098	-26,9
2016	Osalan			5.102	-57,8				5.102	-57,8
2018	Osalan	22.496		16.800	229,3				39.296	670,2
2012	Ertzaintza	319.408		104.625		240.642			664.675	
2014	Ertzaintza	455.083	42,5	176.345	68,5	70.661	-70,6		702.089	5,6
2016	Segurtasuna (Ertzaintza)	385.504	-15,3	1.035.038	486,9		-100,0		1.420.541	102,3
2018	Segurtasuna (Ertzaintza)	381.767	-1,0	1.385.000	33,8				1.766.767	24,4
2012	Ekonomia eta Ogasun Saila	89.317		11.155		16.479			116.951	
2014	Ogasun eta Finantza Saila	48.098	-46,1	0	-100,0	0	-100,0		48.098	-58,9
2016	Ogasun eta Finantza Saila	50.539	5,1	53.809					104.348	116,9
2018	Ogasun eta Finantza Saila	52.581	4,0	38.190	-29,0				90.770	-13,0
2012	Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	190.648		40.737					231.384	
2014	Eusko Jaurlaritza - Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	99.323	-47,9	85.511	109,9				184.834	-20,1
2016	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	63.496	-36,1	52.446	-38,7				115.942	-37,3
2018	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	59.787	-5,8	58.659	11,8				118.446	2,2
2012	Justizia eta Herri Administrazio Saila	67.595		425.950		12.345.031			12.838.576	
2014	Herri Administrazio eta Justizia Saila	52.839	-21,8	541.542	27,1	13.043.334	5,7		13.637.715	6,2
2016	Herri Administrazio eta Justizia Saila	54.009	2,2	946.054	74,7	10.743.475	-17,6		11.743.538	-13,9
2018	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	55.489		84.252		9.904.177			10.043.919	
2018	Lan eta Justizia Saila	55.000		840.466		9.000			904.466	

18.Taula: Eusko Jaurlaritza: Sail eta erakunde autonomoen euskara aurrekontuak, kapituluaren arabera (2012-2014-2016-2018) (3/3)

Urtea	Erakundea	I. Kap. Langileria gastuak		II. Kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak		IV eta VII Kap. Transferentzia arruntak eta kapital transferentziak		Gainerako kapitulu ekonomikoak (III, VI; VIII eta IX)		GUZTIRA	
2012	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	46.656		60.510						107.166	
2014	Enplegu eta Gizarte Politika Saila	49.832	6,8	77.739	28,5					127.570	19,0
2016	Enplegu eta Gizarte Politika Saila	47.994	-3,7	97.138	25,0					145.133	13,8
2018	Enplegu eta Gizarte Politika Saila	49.468	3,1	57.105	-41,2					106.873	-26,4
2012	Lanbide			45.521		40.617				86.138	
2014	Lanbide			35.541	-21,9	42.512	4,7			78.053	-9,4
2016	Lanbide			21.706	-38,9	13.699	-67,8			35.405	-54,6
2018	Lanbide			125.622	478,7					125.622	478,7
2012	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	0		1.941						1.941	
2014	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	963		5.135	164,5					6.098	214,2
2016	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	9.000	834,6		-100,0					9.000	47,6
2018	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	7.779	-13,6	7.290						15.069	67,4
2012	Lehiaren Euskal Agintaritza			877						877	
2014	Lehiaren Euskal Agintaritza			8.691	891,3					8.691	891,3
2016	Lehiaren Euskal Agintaritza			40.000	360,2					40.000	360,2
2018	Lehiaren Euskal Agintaritza			41.391	3,5					41.391	3,5
2012	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	26.186.084		9.823.714		52.236.331		352.257		88.598.386	
2014	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	31.410.896	20,0	9.597.284	-2,3	49.738.086	-4,8	697.625	98,04	91.443.891	3,2
2016	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	29.530.283	-6,0	10.203.918	6,3	46.591.171	-6,3	649.695	-6,87	86.975.067	-4,9
2018	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	30.890.767	4,6	10.316.376	1,1	52.472.307	12,6	680.724	4,8	94.360.173	8,5

Iturria: Siadeco, 2019

Foru aldundiak


Aurrekontu likidatuek igoera nabarmena izan zuten 2006tik 2008ra, eta behera egin zuten orduetik aurrera, harik eta 2016an galera hori eten zen arte. Igoera hori sendotu egin da 2018an, 2016tik koskatxo bat areagotuta. Eta kapitulu guztietan eman da.

Arabako Foru Aldundiaren euskara aurrekontuak %7,1 egin du gora 2016koarekiko. Igoera I. eta II. kapituluetan izan da (ia 140 mila euro I. kapituluaren eta ia 158 mila II. kapituluaren), bi kapitulu hauek euskara aurrekontu orokorrean duten pisua areagotuz. Behera egin du, aldiz, IV. kapituluak (ia 135 mila euro gutxiago).

Bizkaiko Foru Aldundiaren euskara aurrekontuak %2,3 egin du gora 2016koarekiko, eta igoera handiena II. kapitulari dagokio (161 mila euro).

Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara aurrekontuaren guztirako kopuruak %9,8 egin du gora 2016tik 2018ra. Igoera I., II. eta IV. kapituluaren izan den arren, nabarmenagoa izan da IV kapituluaren (671 mila euro). Behera egin du, aldiz VII. kapituluak (242 mila euro).

20. irudia: Foru aldundien euskara aurrekontuaren kapitulukako gastuaren bilakaera, 2006-2018 (milioi €)




Udalak

Euskara aurrekontuek igoera nabarmena izan zuten 2006tik 2008ra —27,7 milioi eurotik 33,6ra—. Hurrengo lau urteetan jaitsi egin zen —2012an, 31,5 milioira—, eta igo egin da harrezkero. Igoera nabarmena izan zen 2016koa, eta aurreko hamar urteetako zenbatekorik handienara iritsi zen: 37,1 milioi euro. Igoera hori sendotu egin da 2018an, eta marka berria ezarri du: 38,2 milioi euro.

Igoera hori bi kapituluren eskutik iritsi da 2018an. Batetik, ondasun eta zerbitzuen gastuak: 13,1 milioi euro, aurreko neurraldietan baino gehiago, nabarmen. Bestetik, pertsonal gastuak: 9,3 milioi euro, aurrekoetan baino kopuru handiagoa. Aldiz, transferentziei dagokien kapituluan jaitsiera bat izan da 2016tik 2018ra, nahiz eta aurreko neurraldietan baino handiagoa izan zenbatekoa.

21. irudia: Udalen euskara aurrekontuaren kapitulukako gastuaren bilakaera, 2006-2018 (milioi €)




Iturria: Siadeco, 2019.

Hiriburuak

Euskara aurrekontuek azken hamabi urteetako zenbatekorik handiena dute hiriburuetan, 2018ko datu likidatuaren arabera: 10,1 milioi euro. 2006-2010 artean gora egin zuten aurrekontuek —7 milioitik 9 milioira—, eta galera agertu zen 2012an —7,6 milioira—. Ordutik gora egin du, eta nabarmen sendotu da 2018an.

2018ko igoera hori hiru kapitulu nagusietan nabari da hein beretsuan: 300.000 euro inguruko igoera dute hirurek. Zenbatekoari dagokionez, ondasun eta zerbitzuen gastuek dute bolumenik handiena (4,9 milioi), eta aztertutako epealdi osoko zenbatekorik handiena da.

22. irudia: Hiriburuetakako udalen euskara aurrekontuaren kapitulukako gastuaren bilakaera, 2006-2018 (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2019.

19. taula: Euskara aurrekontuen (aurrekontu likidatuena) kapitulu ekonomikoen banaketaren bilakaera (2006-2018), erakunde motari jarraikiz (%)

Gastu mota	Erakunde mota	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018
I. kap. Langileria gastuak	Udalak	22,8	23,8	26,2	25,5	26,8	23,8	24,4
	Hiriburuak	35,2	30,5	33,5	32,8	32,2	28,2	28,5
	Foru aldundiak	21,3	18,7	26,4	26,6	24,1	22,5	22,5
	Eusko Jaurlaritza	32,9	31,9	29,7	29,6	34,3	34,0	32,7
	Guztira	30,1	28,8	28,8	28,5	31,5	29,8	29,5
II. kap. Ondasun eta zerbitzu eta ko gastu arruntak	Udalak	32,3	32,7	34,3	34,3	33,0	30,4	34,2
	Hiriburuak	40,2	48,8	44,4	41,4	44,6	49,9	48,4
	Foru aldundiak	18,9	18,3	14,5	14,3	14,7	14,6	16,3
	Eusko Jaurlaritza	24,6	16,8	21,3	11,1	10,5	11,7	10,9
	Guztira	26,0	21,6	24,4	18,1	17,8	19,1	19,0
IV. eta VII. kap. Transferentzia arruntak eta Kapital transferentziak	Udalak	44,0	42,7	39,2	39,8	40,0	45,8	41,4
	Hiriburuak	23,4	20,4	21,5	25,7	22,7	21,9	23,2
	Foru aldundiak	59,4	61,9	57,0	58,8	60,9	62,9	61,3
	Eusko Jaurlaritza	42,0	50,0	48,3	59,0	54,4	53,6	55,6
	Guztira	43,3	48,5	46,0	53,0	50,1	50,7	51,0
Gainerako kapitulu ekonomikoak (III, VI, VIII eta IX)	Udalak	0,9	0,7	0,4	0,4	0,1	0,0	0,0
	Hiriburuak	1,2	0,2	0,6	0,1	0,6	0,0	0,0
	Foru aldundiak	0,4	1,1	2,2	0,3	0,3	0,0	0,0
	Eusko Jaurlaritza	0,5	1,3	0,8	0,4	0,8	0,7	0,7
	Guztira	0,6	1,1	0,8	0,4	0,6	0,4	0,4
GUZTIRA	Udalak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Hiriburuak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Foru aldundiak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Eusko Jaurlaritza	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

20. taula: Euskara aurrekontu likidatuaren kapitulukako banaketaren bilakaera, erakunde motari jarraikiz (2006-2018)(€)

Gastu mota	Erakunde mota	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018
I. kap. Langileria gastuak	Udalak	6.318.801	8.016.350	8.296.362	8.035.527	8.770.013	8.843.908	9.313.324
	Hiriburuak	2.487.374	2.594.713	3.023.679	2.503.658	2.779.652	2.590.077	2.883.827
	Foru aldundiak	3.402.879	3.732.563	4.781.797	4.664.622	3.761.638	3.779.780	3.982.595
	Eusko Jaurlaritza	34.919.349	36.769.681	31.675.978	26.186.084	31.410.896	29.530.283	30.890.767
	Guztira	47.128.403	51.113.307	47.777.816	41.389.891	46.722.199	44.744.048	47.070.513
II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	Udalak	8.954.920	11.011.070	10.866.946	10.776.054	10.787.827	11.301.975	13.085.175
	Hiriburuak	2.840.546	4.147.029	4.012.215	3.157.983	3.848.971	4.571.606	4.895.257
	Foru aldundiak	3.011.456	3.642.023	2.630.728	2.496.327	2.288.859	2.443.854	2.883.786
	Eusko Jaurlaritza	26.101.104	19.411.908	22.724.039	9.823.714	9.597.284	10.203.918	10.316.376
	Guztira	40.908.026	38.212.030	40.233.928	26.254.078	26.522.942	28.521.353	30.388.375
IV eta VII. kap. Transferentzia arruntak eta Kapital transferentzia k	Udalak	12.195.994	14.374.337	12.435.436	12.518.176	13.053.844	17.017.220	15.803.291
	Hiriburuak	1.649.589	1.736.728	1.938.918	1.963.775	1.962.460	2.008.204	2.343.442
	Foru aldundiak	9.484.455	12.327.413	10.326.641	10.286.547	9.501.821	10.566.156	10.871.841
	Eusko Jaurlaritza	44.499.468	57.687.366	51.581.557	52.236.331	49.738.086	46.591.171	52.472.306
	Guztira	67.829.506	86.125.844	76.282.552	77.004.829	74.256.211	76.182.750	81.490.880
Gainerako kapitulu ekonomikoak (III, VI, VIII eta IX)	Udalak	243.151	242.720	126.346	134.552	51.404	18.079	11.143
	Hiriburuak	82.735	15.214	56.527	4.974	47.877	-	-
	Foru aldundiak	62.385	224.466	392.303	60.317	40.000	-	-
	Eusko Jaurlaritza	554.711	1.535.405	804.391	352.257	697.625	649.695	680.724
	Guztira	942.982	2.017.805	1.379.567	552.100	836.905	667.774	691.867
GUZTIRA (likidatua, erakunde arteko transferentziak kendu gabe)	Udalak	27.712.866	33.644.477	31.725.090	31.464.309	32.663.087	37.181.181	38.212.933
	Hiriburuak	7.060.244	8.493.684	9.031.339	7.630.390	8.638.960	9.169.887	10.122.526
	Foru aldundiak	15.961.175	19.926.465	18.131.469	17.507.813	15.592.318	16.789.790	17.738.223
	Eusko Jaurlaritza	106.074.632	115.404.360	106.785.965	88.598.386	91.443.891	86.975.067	94.360.173
	Guztira	156.808.917	177.468.986	165.673.863	145.200.898	148.338.256	150.115.925	160.433.854

Iturria: Siadeco, 2019.

3.

Normalizazio eremuak eta aurrekontuak

3.1. Eremuen definizioa

Euskarari eskainitako aurrekontuen zenbatekoak eta azken urteetako bilakaeraren datuak aurreko atalean aztertu ondoren, euskara aurrekontuak zein normalizazio eremutara destinatzen diren erakusten du hirugarren atal honek.

Euskararen jabekuntza helburu duten eremuak

1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Euskararen familia bidezko transmisiorako sentiberatze eta informazio kanpainak; gurasoak euskarara eta euskal kulturara erakartzeko produktuen sustapena; gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko programak; guraso eta umeek euskara erabiltzeko guneak bultzatzea.

2. IRAKASKUNTZA

Hezkuntzaren alorrera zuzendutako euskara baliabide, programa eta diru laguntza guztien aurrekontua: euskararen jakite maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza programak eta baliabide berriak; euskarazko ikasketen eskaintza sendotzeko egitasmoak (lanbide heziketa, gradu eta graduondoko ikasketak); ikastetxearen ingurune hurbilean euskarazko harremanak sustatzeko programak; ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak.

3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Euskara ikasleei zuzendutako diru laguntzak; euskaltegi pribatuei egindako diru ekarpenak; udal euskaltegiaren funtzionamendu gastu eta pertsonal gastuetarako erakundeak ipinitako diru baliabideak (HABEren diru ekarpena kenduta); gelaz kanpoko erabilera sustatzeko ekimenak (mintzapraktika egitasmoak); atzerriarrentzako idatzizko materialak; euskalduntze-alfabetatze alorrerako ikas materialak oro har.

Euskararen erabilera sustatzeko programa sektorialak

4. ADMINISTRAZIOA

Erakundearen hizkuntza erabilera edota hizkuntza kudeaketarako planen diseinua eta egikaritzea; herri administrazioetako langileen euskara-gaitasuna hobetzeko prestakuntza programak (ordezkapen gastuak barne); erakundearen komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko itzulpen lanen gastuak; administrazioaren informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan euskarazko erabilpena sustatzea; herri administrazioaren eskumeneko hizkuntza paisaia; herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak; beste administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera indartzeko ekimenak

5. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskarazko softwarea eta baliabide teknologikoak sortu eta zabaltzeko egitasmoak eta diru laguntzak (sistema eragileak, aplikazioak, multimedia tresnak, itzulpen automatikorako eta sare sozialetarako tresnak, euskarazko zuzentzaile ortografikoak...; interneten euskarazko edukien presentzia indartzeko ekimenak (hedabideetan, sare sozialetan, enpresen webguneetan...).

6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Euskara planak enpresetara zabaltzeko programak eta diru laguntzak; merkataritza, os-talaritza eta zerbitzu establezimenduetan eragiteko egitasmoak; enpresa eta establezi-menduetako hizkuntza paisaia euskalduntzeko diru laguntzak; enpresa eta establezimen-duetako langileen euskara gaitasuna hobetzeko ikastaro bereziak edo langileentzako diru laguntzak.

7. AISIA ETA KIROLA

Aisialdiko jardueretan euskarazko eskaintza indartzeko egitasmoak (haur eta gazteen-tzako eskaintza, adin tarte guztientzako aisi eskaintza); begiraleen prestakuntza; etorkinen integraziorako euskarazko aisialdi programak; aisialdirako euskarazko produktuen sorkuntza eta zabalpena; kirol elkarteetan eta kirol ikuskizunetan euskara indartzeko proiektuak.

Euskararen elikadura helburu duten eremuak (corpusa, hedabideak eta kulturgintza)

8. LIBURUGINTZA

Euskaraz argitaratutako liburu eta argitalpen elektronikoen merkaturatzea zabaltzea eta kontsumoa sustatzea; euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea (liburutegietako programak, irakurketa tailerrak...).

9. KULTURGINTZA

Liburugintza eta literatura ez diren gainerako kultur sektore guztietan euskarazko kultura sortu eta kontsumitzeko ekimen eta diru laguntzak (antzerkia, musika, bertsolaritza...).

10. PUBLIZITATEA

Euskarazko publizitatearen sorkuntza sustatzeko laguntzak, lehiaketak eta sariak; euskarazko publizitate kanpainen kontratazioa lehenesteko neurriak.

11. CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

Euskararen kalitatea, euskara estandarra eta euskarazko terminologia elikatu eta zabaltzeko era guztietako proiektuak eta erakundeekiko lankidetzak; adierazkortasuna eta tokian tokiko euskalkiak indartzeko egitasmoak; toponimia eguneratu eta zabaltzeko ekimenak; ahozko ondarea bildu eta zabaltzeko egitasmoak...

12. HEDABIDEAK

Euskarazko hedabideei emandako diru laguntzak (herri aldizkariak, aldizkari orokorrak, egunkariak, irati eta telebistak, Internet...); hedabideetan euskararen presentzia indartzeko proiektuak.

Euskara sustapen, ikerketa eta komunikazio ekintza orokorrak

13. INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO EKINTZA OROKORRAK

Erakundetik bultzatutako euskararen aldeko motibazio eta sentsibilizazio ekintza orokorrak (Euskararen Nazioarteko Eguna, euskararen aldeko kanpainak, etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak, gazteengan eragiteko komunikazio programak...).

14. AZTERLAN ETA PLANGINTZA OROKORRAK

Erakundeak berak finantzatutako izaera orokorreko hizkuntza diagnostikoak eta hizkuntza normalkuntzarako azterlan eta plangintzak: ikerketa soziolinguistikoak, kale erabilera neurtzeko azterlanak, euskara sustatzeko plangintza estrategiakoak, eta abar.

15. TOKI ENTITATE ETA MANKOMUNITATEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA OROKORRAK

Udal, mankomunitate eta entitate publikoetan EBPN/ESEP eta euskararen sustapenerako bestelako egitasmo orokorrak garatzeko erakundeak entitate horiei emandako diru laguntzak.

16. BESTELAKO EGITASMO, DIRU LAGUNTZA ETA HITZARMENAK

Aurreko ataletan jaso ez diren gastuez aparte, euskara elkarteei, euskalgintzako eragileei nahiz euskararen aldeko proiektuetan erakundeak kolaboratzen duen bestelako edozein entitateei egindako diru ekarpenak...

Herri administrazioetako euskara atalen egitura eta funtzionamendu gastuak

17. ERAKUNDEKO EUSKARA ARLOAREN FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Euskara zerbitzu edo arloaren ohiko giza baliabide eta baliabide teknikoaren gastuak: bertako langileen pertsonal gastuak, euskara zerbitzuaren kudeaketarako kanpoko enpresei egindako ordainketak eta bestelako funtzionamendu gastu orokorrak (hornidura gastuak, energia, alokairu gastuak...).

3.2. Eremuaren araberako analisisia

Euskalduntze-alfabetatzea

EAEko erakunde publikoen euskara aurrekontuaren ia herena, %30,2, euskalduntze-alfabetatzera bideratu da 2018an: 48,4 milioi euro. Jaurlaritzak ipini du diru horren zatirik handiena, inbertitutako lau eurotik hiru: 36 milioi euro.

Jaurlaritzak euskalduntze-alfabetatzera bideratutako aurrekontu horretan kontuan hartu da HABEren bidez heritarren euskalduntze-alfabetatzera bideratutako diru kopurua, baina ez administraziozko langileen euskalduntzean erabilitakoa —HABEK HAEE/IVAPI eta Herri Administrazio Sailari fakturatutakoa—, hori herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko plangintzak izeneko eremuan sartu baita; orobat, irakasleen euskalduntze-alfabetatzearekin lotutako diru sailak ere ez dira hemen kontuan hartu —Hezkuntza Sailari lotuta dago—, horiek irakaskuntza eremuan baitaude.

Udal euskaltegien finantzaketarako aurrekontua 20,5 milioi eurokoa izanik 2018an, 10,2 HABEK ipinitakoak dira (%49,8), matrikula bidezko sarreretatik 1,9 milioi euro lortu dituzte udalek eta gainerako 8,4 milioi euroak udalen diru-ekarpenekin finantzatu dira.

21. taula: Udal euskaltegien finantzaketa moduaren bilakaera 2012-2018

Udal euskaltegien finantzaketa (€)										
	2012		2014		2016		2018		2016-2018 bilakaera (%)	2012-2018 bilakaera (%)
	€	%	€	%	€	%	€	%		
HABEren udal euskaltegiatarako dirulaguntza	9.480.986	51,03	10.166.407	53,03	8.466.473	41,7	10.102.975	49,8	20,5	6,6
Matrikula bidezko diru sarrerak	2.439.069	13,13	2.100.920	10,96	2.000.134	9,8	1.989.691	9,3	-5,1	-18,4
Udalaren ekarpena	6.660.922	35,85	6.902.489	36,01	9.846.071	48,5	8.400.694	41,0	-14,7	26,3
GUZTIRA	18.580.977	100,00	19.169.816	100,00	20.312.678	100,0	20.502.361	100,0	0,9	10,3

Iturria: Siadeco, 2019.

Irakaskuntza

EAEko erakunde publikoen euskara aurrekontuaren ia bostena, %17,5, irakaskuntza arlora bideratu da 2018an. 28,1 milioi euro dira.

Eusko Jaurlaritzaren gain dago diru kopuru horren zatirik handiena, %87,1: 24,4 milioi euro. Gainerako zatirik handiena udalek eta hiriburuak jarri dute.

Heziketarekin lotutako bi arloek, irakaskuntzak eta euskalduntze-alfabetatzeak, EAEko euskara aurrekontuaren ia erdia hartu dute (%47,9). Nolanahi ere, pisu desberdina dute erakunde esparruaren arabera. Jaurlaritzaren aurrekontuetan dute pisu handiena, ia hiru eurotik bi jarri baititu arlo horietarako (%64,1); udalen aurrekontuaren %33,2 joaten da arlo horietara, eta hiriburuaren kasuan, %26,7. Diputazioek dute esku hartze txikiena arlo horietan: beren euskara aurrekontuaren %3,5 bideratu dute.

Herri administrazioa

Administrazioa bera euskalduntzeko diru kopurua da hirugarrena zerrendan: aurrekontu osoaren %10,5 hartu du zeregin horrek 2018an, 16,8 milioi euro.

Eusko Jaurlaritzak destinatu du diru kopuru horren erdia baino gehiago, %54,5 (9,2 milioi euro). Atzetik datoz udalak eta hiriburuak (%29,6; 5 milioi), eta, azkenik, diputazioak (%15,9; 2,7 milioi).

Hedabideak

Euskarazko komunikabideak laguntzeko, 2018an 10,4 milioi euro jarri dituzte EAEko erakundeek. Jaurlaritzak jarri du erdia baino gehixeago (%51,9; 5,4 milioi), eta haren atzetik, elkarren paretuan daude diputazioak (%25; 2,6 milioi), eta udalak eta hiriburuak (%23,1; 2,4 milioi).

Aisia eta kirola

Aisiaren eta kirolaren eremuan euskararen erabilera areagotzeko egitasmoetara 7,8 milioi euro bideratu dira 2018an, euskara aurrekontu osoaren %4,9. Zatik handiena udalek eta hiriburuak jarri dute: 7,4 milioi, arlo horretan inbertitutakoaren %95,1. Kontuan izan behar da, hala ere, Jaurlaritzatik eta diputazioetatik udaletara bideratutako laguntzen zati bat aisiaren eta kirolaren eremurako dela.

Beste eremuen euskara aurrekontuak

Euskara aurrekontu likidatuaren %2-4 (3-5,5 milioi euro) bideratu da honako esparru hauetarako:

- Bestelako egitasmoak eta dirulaguntzak. Multzo honetan sartzen dira euskara elkarreentzako laguntzak, hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintzak, eta ikerketarako eta proiektu orokorretarako laguntzak. 5,5 milioi euro jarri dituzte arlo honetarako zereginetan, aurrekontuaren %3,4. Eusko Jaurlaritzak jarri du diru gehien (2,6 milioi euro), eta aldundiek ondoren (1,8 milioi).
- Kulturgintza. Esparru horrek 5,3 milioi euro jaso ditu, aurrekontuaren %3,3. Udalek eta hiriburuak jarri dute gehien: 3,5 milioi euro. Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euro jarri ditu arlo horretarako, eta diputazioek, 600.000 euro.
- Toki entitate eta mankomunitateentzako laguntza orokorrak. Eremu horretara 3,9 milioi euro bideratu dituzte EAEko erakundeek 2018an, aurrekontuaren %2,4. Diputazioek jarri dute zenbateko horren %42,1 (1,6 milioi), eta Eusko Jaurlaritzak %40,5 (1,6 milioi euro).
- Arlo sozioekonomikoa. Esparru horrek jaso du aurrekontuaren %2,1, alegia, 3,4 milioi euro. Jaurlaritzak egin du ekarpenik handiena, erdia baino handiagoa: arlo horretako aurrekontuaren %63,1 (2,1 milioi euro).
- Euskararen corpusa eta kalitatea. Zeregin horretarako, 3,3 milioi euro jarri dituzte EAEko instituzioek, aurrekontuaren %2. Jaurlaritzak erdia jarri du: arlo horretarako diruaren %49 (1,6 milioi euro). Diputazioek jarri dute %39 (1,3 milioi euro).

Euskara aurrekontuaren %1-2 jaso dute honako esparru hauek, hots, 2-3 milioi euro:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Aurrekontuaren %1,7 bideratu dute arlo horretara, 2,7 milioi euro. Aurrekontu horren erdia kudeatu dute aldundiek: %50, 1,3 milioi euro jarrita. Jaurlaritzak du beste zati handiena: %45,7, 1,2 milioi euroekin.
- Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak. 2,3 milioi euro jarri dituzte esparru horretarako, aurrekontuaren %1,4. Udalena eta hiriburuena da ekarpenik handiena: 1,3 milioi euro, esparru horretako diru zenbatekoaren %55,9. Jaurlaritzak 700.000 euro bideratu ditu arlo horretara, eta aldundiek, 300.000.

Euskara aurrekontu osoaren %1 baino gutxiago bideratu dute lau alor hauetara:


- Liburugintza. Euskara aurrekontuaren %0,9 hartu du liburugintzaren alorrak: 1,5 milioi euro. Jaurlaritzak osatu du aurrekontuaren ia erdia, 700 mila euroekin: %48,7.
Euskararen biztanleko aurrekontua asko aldatzen da udalerria zein eremu soziolinguistikotan dagoen. Udalerri erdaldunenetan dute zenbatekorik apalena, euskaldunak %30 baino gutxiago diren herrietan: 21,99 euro biztanle bakoitzeko. Hortik gora, aurrekontu handiagoa: euskaldunak %30-50 diren udalerrietan, 29,62 euro; %50-70 direnetan, 42,32 euro; eta %70 baino gehiago diren herrietan, 38,76 euro. Kontuan izatekoa da gune soziolinguistikoen datuetan baduela eragina udalerrien tamainak: oro har, euskararen ezagutza maila apalagoa da udalerri handienetan, eta herri handietan baxuagoa da biztanle bakoitzeko euskara aurrekontua.

Euskaldunak %30 baino gutxiago diren udaletan, euskararen jabekuntzara bideratu dute aurrekontuaren zatirik handiena, %55,6: 12,23 euro biztanleko. Euskalduntze-alfabetatzeak du pisurik handiena udalerri horietako euskara aurrekontuetan.

Euskaldunak %30-50 diren udaletan, aurrekontuaren herena inguru bideratzen dute hizkuntza ezagutzeko neurrietara (%35,6), eta erabilera sustatzeko neurriek ere pisua dute (%30,8). Batez ere aisiara eta kirolera bideratzen dute dirua, eta administrazioaren euskarazko jarduna areagotzera.

Euskaldunak %50-70 diren udalek dute euskara aurrekonturik handiena: 42,32 euro biztanleko. Horietan ere euskararen erabilera (%29,6) eta jabekuntza (%28,1) dira aurrekontuko kapitulu nagusiak, baina pisua du beste batek ere: euskararen elikadurak (%19,1), batik bat hedabideak eta kulturgintza laguntzearekin lotuta.

Euskaldunak %70etik gora diren udaletan, haietan ere jabekuntza da aurrekontuaren ardatzetako bat, baina zeresana dute gainerako alorrek ere: egiturazko gastuek (aurrekontuaren %21,4), euskararen elikadurak (%20,6), erabilera sustatzeko programek (%18,6).

35. taula: Udalen euskara aurrekontu likidatuak, jarduera eremuari eta herritar euskaldunen ehunekoari jarraituz (2018)

	Euskaldunak <%30		Euskaldunak %31-%50		Euskaldunak %51-%69		Euskaldunak ≥%70		Guztira	
	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%
1. Familia bidezko transmisioa	172.444	2,5	331.779	2,8	298.965	2,3	86.213	1,4	889.401	2,3
2. Irakaskuntza	320.015	4,6	616.868	5,2	736.879	5,6	320.111	5,3	1.993.872	5,2
3. Euskalduntze-alfabetatzea	3.398.034	48,6	3.300.239	27,6	2.668.898	20,2	1.336.848	22,0	10.704.019	28,0
EUSKARAREN JABEKUNTZA, GUZTIRA	3.890.493	55,6	4.248.886	35,6	3.704.742	28,1	1.743.172	28,6	13.587.293	35,6
% hor		28,6		31,3		27,3		12,8		100,0
4. Administrazioa	637.014	9,1	1.594.231	13,3	853.233	6,5	289.991	4,8	3.374.469	8,8
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	-	-	24.306	0,2	39.783	0,3	2.738	0,0	66.828	0,2
6. Arlo sozioekonomikoa	29.723	0,4	191.902	1,6	260.619	2,0	165.400	2,7	647.644	1,7
7. Aisia eta kirola	705.101	10,1	1.870.456	15,7	2.746.098	20,8	676.353	11,1	5.998.008	15,7
EUSKARAREN ERABILERA GUZTIRA	1.371.838	19,6	3.680.895	30,8	3.899.732	29,6	1.134.482	18,6	10.086.948	26,4
% hor		13,6		36,5		38,7		11,2		100,0
8. Liburugintza	18.917	0,3	61.873	0,5	129.238	1,0	70.981	1,2	281.010	0,7
9. Kulturgintza	479.204	6,9	398.194	3,3	1.147.719	8,7	377.259	6,2	2.402.377	6,3
10. Publizitatea	820	0,0	56.729	0,5	32.205	0,2	34.400	0,6	124.154	0,3
11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	6.823	0,1	39.239	0,3	52.051	0,4	67.250	1,1	165.363	0,4
12. Hedabideak	83.484	1,2	303.986	2,5	1.151.905	8,7	703.026	11,6	2.242.401	5,9
EUSKARAREN ELIKADURA GUZTIRA	589.248	8,4	860.022	7,2	2.513.118	19,1	1.252.916	20,6	5.215.304	13,6
% hor		11,3		16,5		48,2		24,0		100,0
13. Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	125.114	1,8	484.547	4,1	196.910	1,5	137.860	2,3	944.432	2,5
14. Azterlan eta plangintza orokorrak	-	-	48.175	0,4	126.670	1,0	30.303	0,5	205.148	0,5
15. Toki entitate eta mankomunitateentzako diru laguntza orokorrak	18.750	0,3	278.903	2,3	77.728	0,6	300.431	4,9	675.812	1,8
16. Bestelako egitasmo, diru laguntza eta hitzarmenak	87.156	1,2	134.460	1,1	341.875	2,6	181.511	3,0	745.003	1,9
SUSTAPEN, IKERKETA ETA KOMUNIKAZIO EKINTZA OROKORRAK GUZTIRA	231.020	3,3	946.086	7,9	743.184	5,6	650.106	10,7	2.570.395	6,7
% hor		9,0		36,8		28,9		25,3		100,0
EUSKARA ARLOEN EGITURAZKO GASTUAK	911.013	13,0	2.212.543	18,5	2.324.041	17,6	1.305.396	21,4	6.752.993	17,7
% hor		13,5		32,8		34,4		19,3		100,0
EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUA GUZTIRA	6.993.612	100,0	11.948.432	100,0	13.184.817	100,0	6.086.072	100,0	38.212.933	100,0
% hor		18,3		31,3		34,5		15,9		100,0

Iturria: Siadeco 2019.

36. taula: Udalen euskara aurrekontu likidatuak biztanleko, jarduera eremuari eta herritar euskaldunen ehunekoari jarraikiz (2018)

	Euskaldunak <%30 Euro biztanleko	Euskaldunak %31-%49 Euro biztanleko	Euskaldunak %50-%69 Euro biztanleko	Euskaldunak ≥%70 Euro biztanleko	Guztira Euro biztanleko
1. Familia bidezko transmisioa	0,54	0,82	0,96	0,55	0,75
2. Irakaskuntza	1,01	1,53	2,37	2,04	1,68
3. Euskalduntze-alfabetatzea	10,69	8,18	8,57	8,51	9,00
EUSKARAREN JABEKUNTZA, GUZTIRA	12,23	10,53	11,89	11,10	11,42
4. Administrazioa	2,00	3,95	2,74	1,85	2,84
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	-	0,06	0,13	0,02	0,06
6. Arlo sozioekonomikoa	0,09	0,48	0,84	1,05	0,54
7. Aisia eta kirola	2,22	4,64	8,82	4,31	5,04
EUSKARAREN ERABILERA GUZTIRA	4,31	9,13	12,52	7,23	8,48
8. Liburugintza	0,06	0,15	0,41	0,45	0,24
9. Kulturgintza	1,51	0,99	3,68	2,40	2,02
10. Publizitatea	0,00	0,14	0,10	0,22	0,10
11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	0,02	0,10	0,17	0,43	0,14
12. Hedabideak	0,26	0,75	9,70	4,48	1,88
EUSKARAREN CORPUSA, HEDABIDE ETA KULTURGINTZARAKO GUZTIRA	1,85	2,3	8,07	7,98	4,38
13. Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	0,39	1,20	0,63	0,88	0,79
14. Azterlan eta plangintza orokorrak	-	0,12	0,41	0,19	0,17
15. Toki entitate eta mankomunitateentzako diru laguntza orokorrak	0,06	0,69	0,25	1,91	0,57
16. Bestelako egitasmo, diru laguntza eta hitzarmenak	0,27	0,33	1,10	1,16	0,63
SUSTAPEN, IKERKETA ETA KOMUNIKAZIO EKINTZA OROKORRETARAKO GUZTIRA	0,73	2,35	2,39	4,14	2,16
EUSKARA ARLOEN EGITURAZKO GASTUETARAKO	2,86	5,49	7,46	8,31	5,68
EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUA GUZTIRA	21,99	29,62	42,32	38,76	32,12

Iturria: Siadeco, 2019.

4.

Euskara sustatzeko dirulaguntzak


4.1. Datu orokorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio guztiek 2018an 160,4 milioi euroko aurrekontu likidatua izan dute, eta zenbateko horren %50,8 bideratu dute dirulaguntzetara: 81,5 milioi euro.

2012tik 2014ra jaitsi egin zen diru laguntzen zenbatekoa: 2,7 milioi euroko beherakada. 2014tik 2016ra, berriz, gora egin zuen, 1,9 milioi. 2016tik 2018ra sendotu egin da igoera: 5,3 milioi gehiago. Hortaz, 2012tik izandako kopururik handiena da 2018koa.

Dirulaguntzetara bideratutako diruaren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak jarri du: 52,5 milioi euro, laguntzetarako aurrekontu likidatuaren %64,4. Atzerago daude gainerako erakunde esparruak: udalek %19,4 jarri dute (15,8 milioi); diputazioek, %13,3 (10,9 milioi); eta hiriburuek, %2,9 (2,3 milioi). Eboluzioari dagokionez, 2012tik 2018ra erakunde esparru guztietan handitu da dirulaguntzetarako aurrekontu likidatua, baina ez hein berean: udalek izan dute igoerarik adierazgarriena (%26), eta Jaurlaritzak apalena (%0,5).

24. irudia: Euskara sustatzeko dirulaguntzetako aurrekontuen erakundekako banaketa (%) (2018)



Iturria: Siadeco, 2019.

37. taula: Euskararako dirulaguntzen bilakaera 2012-2018, erakunde motari jarraikiz

Erakunde mota	Dirulaguntzen aurrekontua (€)									
	2012		2014		2016		2018		2016-2018 bilakaera (%)	2012-2018 bilakaera (%)
	€	%	€	%	€	%	€	%		
Udalak	12.518.176	16,3	13.053.843	17,6	17.017.220	22,3	15.803.291	19,4	-7,1	26,2
Arabakoak	214.759	0,3	118.074	0,2	279.279	0,4	230.610	0,3	-17,4	7,4
Bizkaikoak	6.459.279	8,4	6.503.431	8,8	8.602.430	11,3	7.997.674	9,8	-7,0	23,8
Gipuzkoakoak	5.844.138	7,6	6.432.338	8,7	8.135.511	10,7	7.575.008	9,3	-6,9	29,6
Hiriburuak	1.963.775	2,6	1.962.460	2,6	2.008.204	2,6	2.343.442	2,9	16,7	19,3
Gasteizko Udala	578.230	0,8	645.857	0,9	746.415	1,0	779.690	1,0	4,5	34,8
Bilboko Udala	776.485	1,0	631.750	0,9	657.402	0,9	876.518	1,1	33,3	12,9
Donostiako Udala	609.060	0,8	684.853	0,9	604.387	0,8	687.234	0,8	13,7	12,8
Foru aldundiak	10.286.547	13,4	9.501.821	12,8	10.566.156	13,9	10.871.841	13,3	2,9	5,7
Arabako F.A.	679.200	0,9	823.000	1,1	1.070.693	1,4	935.750	1,1	-12,6	37,8
Bizkaiko F.A.	6.219.555	8,1	5.060.071	6,8	5.326.352	7,0	5.338.242	6,6	0,2	-14,2
Gipuzkoako F.A.	3.387.792	4,4	3.618.750	4,9	4.169.111	5,5	4.597.849	5,6	10,3	35,7
Eusko Jaurlaritza	52.236.331	67,8	49.738.086	67,0	46.591.171	61,2	52.472.306	64,4	12,6	0,5
GUZTIRA	77.004.829	100,0	74.256.210	100,0	76.182.751	100,0	81.490.880	100,0	7,0	5,8

Iturria: Siadeco, 2019.

Kalkulatu da erakunde bakoitzak biztanleko zenbat diru jarri duen laguntzetarako.

- 5.000 biztanlez gorako udalerrien kasuan —hiriburuak aparte utzita—, Gipuzkoakoek jarri dute biztanleko diru gehien laguntzetan: 15,99 euro. Bizkaikoek 11,72 euro jarri dituzte, eta Arabakoek, 6,77. 2016an baino ratio apalagoak dituzte hiru herrialdeetan, nahiz eta 2012koak baino handiagoak izan Bizkaiko eta Gipuzkoako udalen kasuan.
- Hiriburuetako udalei dagokienez, Donostiakoak du ratorik onena (3,78 euro biztanleko), eta gertu du orain arteko zenbatekorik handiena, 2014koa (3,80 euro). Gasteizko Udalak 3,17 euro jarri ditu biztanleko, eta Bilboko Udalak, gutxiago: 2,55 euro. Arabako eta Bizkaiko hiriburuen kasuan, 2012az geroztik izandako ratorik handiena da 2018an.
- Diputazioetan, Gipuzkoakoak jarri du biztanleko zenbatekorik handiena: 6,41 euro. Atzetik du Bizkaiko Foru Aldundia (4,67 euro), eta Arabako Diputazioa dago azkenik (2,85 euro). 2016tik 2018ra Gipuzkoako Foru Aldundiak soilik handitu du ratioa, eta aurreko neurraldietan baino ratio handiagoa du; Bizkaikoak eutsi egin dio, eta Arabakoak, jaitsi.

38. taula: Biztanle bakoitzeko emandako dirulaguntzen bilakaera 2012-2018, erakunde-motari jarraiki

Erakunde mota	Dirulaguntzen aurrekontua biztanleko (€/biztanleko)					
	2012	2014	2016	2018	2016-2018 bilakaera (%)	2012-2018 bilakaera (%)
Udalak	10,6	11,0	14,36	13,28	-7,5	25,3
Arabakoak	7,5	3,5	8,22	6,77	-17,6	-9,7
Bizkaikoak	9,4	9,5	12,64	11,72	-7,2	24,7
Gipuzkoakoak	12,7	13,8	17,29	15,99	-7,5	25,9
Hiriburuak	2,5	2,6	2,62	3,04	16,0	21,5
Gasteizko Udala	2,4	2,7	3,08	3,17	2,8	32,0
Bilboko Udala	2,2	1,8	1,92	2,55	32,9	16,0
Donostiako Udala	3,3	3,8	3,35	3,78	12,9	14,6
Foru aldundiak	4,7	4,4	4,86	4,97	2,2	5,7
Arabako F.A.	2,1	2,6	3,31	2,85	-13,8	35,9
Bizkaiko F.A.	5,4	4,4	4,67	4,67	0,0	-13,5
Gipuzkoako F.A.	4,8	5,1	5,85	6,41	9,6	33,6
Eusko Jaurlaritza	23,8	22,9	21,41	23,98	12,0	0,8
GUZTIRA	35,1	34,2	35,01	37,24	6,4	6,1

Iturria: Siadeco, 2019.

4.2. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzak denera 52,4 milioi euroko aurrekontu likidatua izan du 2018an dirulaguntzetarako. Honako hauek dira kopuru handieneko laguntza esparruak:

- Euskalduntze-alfabetatzea: 33,5 milioi euro, dirulaguntzen %64. Euskaltegi pribatuen eta udalen menpekoen dirulaguntzek dute zatirik handiena (20 milioi euro), baina tartean daude euskara ikasleen dirulaguntzak ere, besteak beste. Orotara 4,8 milioi euro gehiagoko zenbatekoa da 2016koarekin alderatuta; %2,1 gehiago. Kontuan izan behar da 6 urtetan eremu honek izandako igoera: euskara ikasleentzako dirulaguntzarik apenas zegoen 2012an, eta 2018an 1,7 milioi euro izan dira. Igoera orokorra izan da esparru honen atalei dagokionean.
- Hedabideak: 5,3 milioi euroko laguntzak, zenbateko osoaren %10,1. Euskarazko hedabideak bultzatzeko deialdiak du zatirik handiena; erdal komunikabideetan euskara sustatzeko deialdia ere tartean dago. %2,5 handitu da esparru horretarako dirulaguntza 2016tik 2018ra.
- Irakaskuntza sistema euskalduntzea: 3,4 milioi euro, Jaurlaritzaren dirulaguntzen %6,6. Tartean daude irakasleen prestakuntzarako Irale programa, hizkuntza normalizaziorako Ulibarri programa, ikasmaterialen Eima deialdiak... 2012tik pisua galtzen doaz hezkuntza arloko dirulaguntzak, eta azken neurraldian (2016-2018) %8,4 egin dute behera (0,3 milioi).
- Bestelako dirulaguntzak eta hitzarmenak: 2,6 milioi euro, laguntzen %5,0. Euskalgintza deialdiari dagokio zatirik handiena, 990 mila euro, eta bigarren kopuru altuena EITBren bitartez euskara sustatzeko kanpainari dagokio, 400 mila euro. Gainerakoa, hainbat erakunderekin egindako itunei:
 - Topagunea: 300 mila euro
 - Euskal Wikilarien Elkartea: 200 mila euro
 - Labayru: 143 mila euro
 - Herri Urrats: 130 mila euro
 - Soziolinguistika Klusterra: 90 mila euro
 - Eusko Ikaskuntza: 50 mila euro
 - HUHEZI eta Deustuko Unibertsitatea: 30na mila euro
 - ONCE Fundazioa: 28,6 mila euro
 - Galtzaundi eta Galtzagorri Elkarteak: 20na mila euro

2016tik 2018ra %75 handitu dira esparru horretarako laguntzak.

- Arlo sozioekonomikoa: 1,9 milioi euro, dirulaguntzen %3,6. Lanhitz, Euslan eta Euskara Entitate Pribatuetan (deialdiak 18/19 ikasturtean hartutako izena) deialdiak daude oinarrian, enpresak euskalduntzeko planetarako deialdiak guztiak ere. 2016 urtearekiko bere horretan mantendu da esparru honen pisua.
- Toki entitateak: 1,5 milioi euro izan dira 2018an, laguntzen %3,0. Batik bat udaletan EBPn Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana garatzeko deialdietarako izan dira laguntzak. Bere horretan mantendu da esparru hau ere 2016ko ekitaldiarekiko.
- Euskararen corpusa eta kalitatea: 1,4 milioi euro, dirulaguntzen %2,7. Oso osorik

Euskaltzaindiari bideratutako kopurua jasotzen du esparru honek, izan ere, Labayruri dagokiona aurretik aipatu da, bestelako dirulaguntza eta hitzarmenen atalean. Eremu honek ere pisua mantendu du 2016koarekiko.

- Kulturgintza: 1,2 milioi euro, laguntzetarako zenbatekoaren %2,3. Besteak beste, Bertsozale Elkarfearen, Mintzola fundazioaren eta Zineuskadiren dirulaguntzak daude tartean. 2016ko zenbatekoaren aldean, %65,8 handiagoa da esparru horretarako laguntza.
- Teknologia berriak: 794 mila euro, laguntzen zenbatekoaren %1,5. Batez ere ICTetan euskara sustatzeko deialdiari dagokio. Eremu honi bideratutako laguntzak bere horretan mantendu dira aztertutako aurreko ekitaldiarekiko.
- Liburugintza, literatura eta irakurzaletasuna: 715 mila euro, laguntzen %1,4. Euskarazko argitalpenetarako laguntzak daude tartean, irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoentzako laguntzak ere bai, eta Euskadi literatura sarietarakoak. 2016an baino %17,4 txikiagoa da esparru horretarako laguntza.
- Administrazioa: 35 mila euro, dirulaguntzen %0,1. Tartean daude langileen ordezkapen gastuetarako laguntzak. Esparru horretarako laguntza %66,4 murriztu da 2016tik.

2016tik 2018ra Eusko Jaurlaritzaren euskararako dirulaguntzetan igoera dago, 5,8 milioi eurokoa hain zuzen ere aurrekontu kontsolidatuari dagokionean. Sail eta Erakunde autonomokako azterketa eginez, aurrekontu likidatuak aintzat hartuta, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 7,4 milioiko igoera izan du dirulaguntzetan eta HABEK 4,7 milioikoa. Aldiz, Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Sailak 800 mila euroko jaitsiera eta Hezkuntza Sailak 300 mila eurokoa.

Hurrengo taulan ikus daiteke Jaurlaritzaren euskararako dirulaguntza guztiei buruzko informazioa, baita dirulaguntza lerro bakoitzean 2012tik 2018ra izandako bilakaera ere.

39. Taula: Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuei jarraiki (2012-2018) (1/3)

	2012 dirulaguntzak		2014 dirulaguntzak		2016 dirulaguntzak		2018 dirulaguntzak		2012-2014 bilakaera (%)	2014-2016 bilakaera (%)	2016-2018 bilakaera (%)	
	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%				
Irakaskuntza	Ulibarri programa	283.308	0,5	999.982	2,0	1.049.975	2,3	1.044.945	2,0	323,5	5,0	-0,5
	Nolega deialdiak			199.896		150.000	0,3	190.000	0,4		-25,0	26,7
	Eima I eta IV deialdiak	790.312	1,5	894.146	1,8	624.375	1,3	401.433	0,8	13,1	-30,2	-35,7
	Eima 2.0 deialdia	106.719	0,2	196.640	0,4	198.089	0,4	181.496	0,3	84,3	0,7	-8,4
	Irale deialdia	3.640.483	7,0	3.270.934	6,6	1.516.443	3,3	1.282.306	2,4	- 10,2	-53,6	-15,4
	Izendunak		-	386.457	0,8	232.800	0,5	352.800	0,7	-	-39,8	51,5
	Besterik (Mercator, Arrue)	2.154.308	4,1		-		-		-	- 100,0	-	-
	Besterik (UEU, Hitzarmenak atzeriko unibertsitateekin)	119.732	0,2		-		-		-	- 100,0	-	-
	TINKO elkartearekin "Euskara zine aretoetara"		-	50.000	0,1		-		-	-	-100,0	-
GUZTIRA	7.094.862	13,6	5.998.055	12,1	3.771.682	8,1	3.452.981	6,6	- 15,5	-37,1	-8,4	
Euskalduntze-alfabetatzea	Euskara ikasleentzako dirulaguntza orokorrak (HABE)	1.644	-	791.957	1,6	1.252.863	2,7	1.726.482	3,3	48.072,6	58,2	37,8
	Euskaltegi pribatuei euskara ikastaroengatik dirulaguntzak (HABE)	19.098.261	36,6	17.728.744	35,6	17.924.347	38,5	20.065.478	38,2	- 7,2	1,1	11,9
	Udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegi publikoei dirulaguntzak (HABE)	10.399.026	19,9	11.523.363	23,2	9.265.751	19,9	11.529.729	22,0	10,8	-19,6	24,4
	Euskara ikastaroengatik euskal etxeentzako dirulaguntzak (HABE)	229.992	0,4	209.764	0,4	216.993	0,5			- 8,8	3,4	-100,0
	Besterik (HABE)	46.640	0,1	26.500	0,1	26.500	0,1	89.427	0,2	- 43,2	0,0	250,9
	Topagunea (Bidaide eta Auzoko programak)		-	92.920	0,2	90.920	0,2	93.000	0,2	-	-2,2	-1,6
	HABEri transferentzia (BATURAN SARTU GABE)	30.137.786	57,7	29.198.438	58,7	30.522.561	65,5	35.976.774	68,6	- 3,1	4,5	17,9
GUZTIRA	29.775.563	57,0	30.373.248	61,1	28.777.375	61,8	33.504.116	63,9	2,0	-5,3	16,4	
EUSKARAREN EZAGUTZA ETA TRANSMISIOA, GUZTIRA		36.870.425	70,6	36.371.303	73,1	32.549.057	69,9	36.957.097	70,4	73,1	-10,5	13,5
Administrazioa	Administrazioko langileen euskalduntze-alfabetatze ikastaroetarako laguntzak (Polizia Akademia, Lanbide)	281.259	0,5	113.172	0,2	13.699	0,0	35.000	0,1	- 59,7	- 87,9	155,5
	Udaletako eta mankomunitateetako langileen ordezkapenentzako dirulaguntzak (HAEE)	115.739	0,2	160.990	0,3	62.057	0,1		-	39,10	- 61,5	-100,0
	Besterik (idazle eskolarentzako dirulaguntzak) (HAEE)	6.000	0,0		-		-		-	- 100,0	-	-100,0
	Normalkuntza programarako (VAPI egindako transferentzia) (BATURAN SARTU GABE)	12.345.031	23,6	13.043.334	26,2	10.743.475	23,1	9.904.177		5,6	-17,6	-7,8
	Besterik	16.479	-	28.500	0,1	28.499	0,1		-	72,9	0,0	-
	GUZTIRA	419.477	0,8	302.662	0,6	104.255	0,2	35.000	0,1	- 27,85	- 65,6	-66,4

39.Taula: Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuei jarraiki (2012-2018) (2/3)

		2012 dirulaguntzak		2014 dirulaguntzak		2016 dirulaguntzak		2018 dirulaguntzak		2012-2014 bilakaera (%)	2014-2016 bilakaera (%)	2016-2018 bilakaera (%)
		Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%			
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	IKT deialdia	1.332.496	2,6	754.353	1,5	782.102	1,7	783.143	1,5	- 43,4	3,7	0,1
	Euskaraz azpidatzitako filmen web-a / Irigoienazpikoa	82.312	0,2		-		-	-	-	- 100,0	-	-
	Euskarazko edukiak informazio teknologien bidez hedatzeko	40.000	0,1		-	11.000	0,0	11.000	0,0	- 100,0	-	0,0
	Zuzenbidearen Euskal Akademiarekiko lankidetzaren (HAE) (HAE)	8.000	-	8.000	-		-		-	-	- 100,0	-
	GUZTIRA	1.462.808	2,8	762.353	1,5	793.102	1,7	794.143	1,5	- 47,9	4,0	1,5
Arlo sozioekonomikoa	LANHITZ deialdia	2.207.194	4,2	1.918.756	3,9	1.576.837	3,4	569.431	1,1	- 13,1	-17,8	-0,6
	EUSLAN deialdia	-		-		294.950	0,6	157.197	0,3	-	-	-0,5
	Euskara entitate pribatuetan (18/19)							1.072.500	2,0			0,9
	Besterik	-		-		56.493	0,1	107.395	0,2	-	-	0,0
	GUZTIRA	2.207.194	4,2	1.918.756	3,9	1.928.280	4,1	1.906.523	3,6	- 13,1	0,5	0,0
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMETARAKO, GUZTIRA		4.089.479	7,8	2.983.771	6,0	2.825.637	6,1	2.735.666	5,2	6,0	- 5,3	0,0
Liburugintza	Euskarazko literatura argitalpenak	365.331	0,7	361.150	0,7	588.942	1,3	509.589	1,0	- 1,1	63,1	-13,5
	Literatura eta euskal irakurzaletasuna sustatzeko laguntzak	237.600	0,5	225.600	0,4	226.600	0,5	146.000	0,3	- 35,3	0,1	-35,5
	Besterik	126.000	0,2		-	51.262	0,1	60.000	0,1	- 100,0	-	17,0
	GUZTIRA	728.931	1,4	586.750	1,2	866.804	1,9	715.589	1,4	- 19,5	47,7	-17,4
Kulturgintza	Zinema euskaraz eta film azpittitulatuak	366.000	0,7	401.829	0,8	545.751	1,2	460.000	0,9	9,8	35,8	- 15,7
	Euskal Herriko Bertsozale Elkartea eta Mintzola	108.800	0,2	102.000	0,2	142.000	0,3	244.000	0,5	- 6,2	39,2	71,8
	Euskarazko gidoiak eta gazteen gidoiak euskaraz		-	111.650	0,2		0,0	413.146	0,8	-	- 100,0	
	Besterik	211.204	0,4	48.140	0,1	37.500	0,1	85.500	0,2	-100,0	- 22,1	126,7
	GUZTIRA	686.004	1,3	663.619	1,3	725.251	1,6	1.202.146	2,3	- 3,2	9,3	65,8
Corpus plangintza	Euskaltzaindia, (2016ean Labayru eta Euskararen institutua barne)	1.491.220	2,9	1.396.970	2,8	1.406.970	3,0	1.400.000	2,7	-6,3	0,7	2,7
	Besterik	28.700	0,1		-		-		-	- 100,0	-	-
	GUZTIRA	1.519.920	2,9	1.396.970	2,8	1.406.970	3,0	1.400.000	2,7	- 8,1	0,7	-0,5
Hedabideak	Tokikom		-	24.999	0,1	25.000	0,1	25.000	0,0	-	0,0	0,0
	Hedabideak deialdia	5.092.752	9,8	4.969.318	10,0	5.126.905	11,0	5.256.302	10,0	- 2,4	3,2	2,5
	GUZTIRA	5.092.752	9,8	4.994.317	10,0	5.151.905	11,1	5.281.302	10,1	- 1,9	3,2	2,5
EUSKARAREN CORPUSA, HEDABIDE ETA KULTURGINTZARAKO GUZTIRA		8.027.607	15,4	7.641.656	15,4	8.150.930	7,5	8.599.037	16,4	- 4,8	6,7	5,5

39.Taula: Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuei jarraiki (2012-2018) (3/3)

		2012 dirulaguntzak		2014 dirulaguntzak		2016 dirulaguntzak		2018 dirulaguntzak		2012-2014 bilakaera (%)	2014-2016 bilakaera (%)	2016-2018 bilakaera (%)
		Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%			
Toki entitate eta mankomunitateentzat	EBPN/ESEP deialdia	1.526.436	2,9	1.274.692	2,6	1.406.943	3,0	1.289.224	2,5	- 16,5	10,4	-9,6
	EUDEL + euskara planetarako	51.000	0,1	28.000	0,1	172.388	0,4	199.277	0,4	- 45,1	515,7	15,6
	Argantzungo Udala	80.000	0,2	60.000	0,1			70.000	0,1	- 25,0	- 100,0	
	GUZTIRA	1.657.436	3,2	1.362.692	2,7	1.579.331	3,4	1.568.501	3,0	- 17,8	15,9	-0,7
Bestelako egitasmo eta, dirulaguntzak	Euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzako							1.011.600	1,9			-
	Euskara sustatu eta zabaltzeko egiten diren jardueretarako (Euskalgintza deialdia barne)	1.566.383	3,0	1.372.664	2,7	1.457.617	3,1	1.457.905	2,8	-12,3	6,2	-
	Hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintza orokorretarako laguntzak							142.500	0,3			-
	Besterik	25.000	0,1	6.000	0,0	28.600	0,1			- 100,0	-	
	GUZTIRA	1.591.383	3,1	1.378.664	2,8	1.486.217	3,2	2.612.005	5,0	- 13,4	7,8	75,7
EUSKARAREN SUSTAPEN PLANGINTZA ETA EGITASMO OROKORRETARAKO GUZTIRA		3.248.819	6,2	2.741.356	5,5	3.065.548	6,6	4.180.506	8,0	5,5	5,5	36,4
GUZTIRA		52.236.330	100,0	49.738.085	100,0	46.591.171	100,0	52.472.306	100,0	100,0	- 6,3	12,6

Iturria: Siadeco 2019.

Oharra: Diru laguntza guztiak Hezkuntza Sailak eta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eman dituzte, zehaztutakoak izan ezik.

Arloz arloko dirulaguntzak biztanleko egindako inbertsioaren arabera jaso dira.

40. Taula: Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko dirulaguntzak eta euro/biztanleko ratioak, eremuari jarraiki (2018)

Eremua	Dirulaguntzak		Euro biztanleko
	€	%	
Ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza planetarako	1.044.945	2,0	0,48
Ikastetxeetako euskal girotze, barnetegi edo ikastetxeen arteko trukerako	190.000	0,4	0,09
Hezkuntzarako euskarazko idatz-materialak sortzeko	401.433	0,8	0,18
Hezkuntzarako euskarazko ikus-entzunezko eta softwaregintzarako	181.496	0,3	0,08
Irakasleen hizkuntza prestakuntzarako	1.282.306	2,4	0,59
Besterik	352.800	0,7	0,16
IRAKASKUNTZA	3.452.981	6,6	1,58
Euskara ikasleentzako dirulaguntza orokorrak	1.726.482	3,3	0,79
Euskaltegi pribatuei euskara ikastaroengatik	20.065.478	38,2	9,17
Udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegi publikoei	11.529.729	22,0	5,27
Mintzalaguna egitasmoa aurrera eramateko	93.000	0,2	0,04
Besterik	89.427	0,2	0,04
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	33.504.116	63,9	15,31
Euskara ikastaroetara joaten diren administrazio publikoko langileak ordezkatzeko	35.000	0,1	0,02
ADMINISTRAZIOA	35.000	0,1	0,02
Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzeko	783.143	1,5	0,36
Ikus-entzunezkoen arloan euskarazko sorrera sustatzeko	11.000	0,0	0,01
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA	794.143	1,5	0,36
Enpresa eta entitate pribatuen euskara planetarako	1.906.523	3,6	0,87
ARLO SOZIOEKONOMIKOA	1.906.523	3,6	0,87
Euskaraz argitaratutako liburuetarako	509.589	1,0	0,23
Literatura eta euskal irakurzaletasuna sustatzeko	146.000	0,3	0,07
Besterik	60.000	0,1	0,03
LIBURUGINTZA	715.589	1,4	0,33
Zine munduan euskara sustatzeko	460.000	0,9	0,21
Bertsolaritza sustatu eta hedatzeko	244.000	0,5	0,11
Euskal kultura sendotu eta hedatzeko	413.146	0,8	0,19
Besterik	85.000	0,2	0,04
KULTURGINTZA	1.202.146	2,3	0,55
Euskararen corpusa eta kalitatea hobetzeko egitasmo eta erakundeentzako	1.400.000	2,7	0,64
CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA	1.400.000	2,7	0,64
Euskaraz internet bidezko hedabideetarako	25.000	0,0	0,01
Besterik	5.256.302	10,0	2,40
HEDABIDEAK	5.281.302	10,1	2,41
Toki entitateetan EBP/NEEP garatzeko	1.271.224	2,4	0,58
Udal eta mankomunitateek bultzatutako euskara egitasmoetarako	199.277	0,4	0,09
Besterik	98.000	0,2	0,04
TOKI ENTITATE ETA MANKOMUNITATEENTZAKO DL	1.568.501	3,0	0,72
Euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzako	1.011.600	1,9	0,46
Euskara sustatu eta zabaltzeko egiten diren jardueretarako	1.457.905	2,8	0,67
Hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintza orokorretarako	142.500	0,3	0,07
BESTELAKO EGITASMO ETA DIRU-LAGUNTZAK	2.612.005	5,0	1,19
Guztira	52.472.306	100,0	23,98

Iturria: Siadeco, 2019

4.3. Foru aldundiak

Hiru diputazioek hizkuntza normalizaziorako 2018an 10,9 milioi euro eman dituzte dirulaguntzetan. Zenbateko osoari erreparatuta, Bizkaiko Foru Aldundiarena da kopururik handiena (5,3 milioi euro); atzerago dago Gipuzkoakoa (4,6 milioi), eta koska dago Arabakora (0,9 milioi). Aldiz, dirulaguntzetan emandako kopurua lotzen bada biztanleko ratioarekin, Gipuzkoak du zenbatekorik handiena: 6,41 euro herritar bakoitzeko. Euskara aurrekontutik dirulaguntzetara bideratutako portzentajerik handiena ere Gipuzkoako Foru Aldundiak du: %68,5.

41. taula: Foru aldundien dirulaguntzen aurrekontuak (2018)

		FORU ALDUNDIAK			
		Arabako F.A.	Bizkaiko F.A.	Gipuzkoako F.A.	GUZTIRA
Dirulaguntzak guztira	Euroak	935.750	5.338.242	4.597.849	10.871.841
	% hor	8,6	49,1	42,3	100,0
Euskara aurrekontu osoarekiko %		38,2	62,2	68,6	61,3
Dirulaguntzak biztanleko (euro/biztanle)		2,85	4,67	6,41	4,97

Iturria: Siadeco, 2019.

Honako hauek dira dirulaguntza handiena izan duten esparruak:

- Hedabideak. 2,6 milioi euro, dirulaguntzen %23,9. Gipuzkoako Aldundiak eman du laguntzarik handiena: 1,6 milioi euro. Bizkaiko Diputazioak 986 mila euro jarri ditu, eta Arabakoak, 50 mila.
- Bestelako egitasmo eta dirulaguntzen eremua. 1,7 milioi euro, laguntzen %15,2. Multz horretan daude euskara elkarteentzako eta halako eragileentzako laguntzak. Zenbatekorik handiena Bizkaiko Diputazioari dagokio: 794 mila euro.
- Toki entitate eta mankomunitateentzako dirulaguntzen eremua. 1,6 milioi euro, laguntzen %15. Bizkaiko Diputazioari dagokio zenbatekorik handiena: 745 mila euro.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak: 1,3 milioi euro, laguntzetarako zenbatekoaren %12,2. Bizkaiko Aldundiak jarri du diru gehien arlo horretan. Arabako Foru Aldundiak ez du eman esparru horretarako laguntzarik.
- Corpusa eta kalitatea. 1,3 milioi euro, laguntzen %11,7. Arlo horretan diharduten egitasmo eta erakundeentzako da dirulaguntzen zenbatekorik handiena. Bizkaiko Diputazioak jarri du laguntzen zenbatekorik handiena (575 mila euro).
- Kulturgintza. 808 mila euro, laguntzen %7,4. Gipuzkoako Foru Aldundiak eman du dirulaguntzetan zenbatekorik handiena: 480 mila euro.
- Euskalduntze-alfabetatzea. 595 mila euro, dirulaguntzen %5,5. Batez ere euskara ikasleen dirulaguntza orokorrekin dute pisua. Gehienbat Bizkaiko eta Arabako diputazioek eman dituzte era horretako laguntzak.

- Arlo sozioekonomikoa. 362 mila euro, laguntzen %3,3. Euskara planetarako laguntzek dute pisu handiena arlo horretan. Bizkaiko Diputazioarena da laguntza zenbatekorik handiena, eta Arabako Foru Aldundiak ez du dirulaguntzarik ematen arlo sozioekonomikoan.
- Aisia eta kirola. 327 mila euro, laguntzen %3. Zati handiena Bizkaiko Diputazioak jartzen du: 285 mila euro.
- Liburugintza. 306 mila euro, laguntzetarako zenbatekoaren %2,8. Diru zatirik handiena Gipuzkoako Aldundiari dagokio (210 mila euro), eta Arabakoak ez du batere laguntzarik eman.

42. taula: Foru aldundien euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuei jarraikiz (2018)

	Foru Aldundia						Guztira	
	Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia			
	€	%	€	%	€	%	€	%
a) Euskara ikasleentzako diru-laguntza orokorrak	38.436	4,1	433.978	8,1	1.775	0,0	474.189	4,4
d) Euskaltegi pribatuei euskara ikastaroengatik	40.000	4,3	-	-	-	-	40.000	0,4
i) Besterik	81.225	8,7	-	-	-	-	81.225	0,7
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA % hor.	159.661	17,1	433.978	8,1	1.775	0,0	595.414	5,5
		26,8		72,9		0,3		100,0
a) Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzeko	-	-	247.850	4,6	481.364	10,5	729.214	6,7
b) Euskarazko edukiak informazio teknologien bidez hedatzeko	-	-	6.000	0,1	-	-	6.000	0,1
c) Ikus-entzunezkoen arloan euskarazko sorrera sustatzeko	-	-	595.000	11,1	-	-	595.000	5,5
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA % hor.	-	-	848.850	15,9	481.364	10,5	1.330.214	12,2
		-		63,8		36,2		100,0
a) Enpresa eta entitate pribatuen euskara planetarako	-	-	270.000	5,1	-	-	270.000	2,5
b) Alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko egitasmoetarako	-	-	-	-	92.000	2,0	92.000	0,8
ARLO SOZIOEKONOMIKOA % hor.	-	-	270.000	5,1	92.000	2,0	362.000	3,3
		-		74,6		25,4		100,0
b) Euskaraz garatutako haur eta gazteen aisialdirako	-	-	-	-	42.000	0,9	42.000	0,4
f) Besterik	-	-	285.490	5,3	-	-	285.490	2,6
AISIA ETA KIROLA % hor.	-	-	285.490	5,3	42.000	0,9	327.490	3,0
		-		87,2		12,8		100,0
a) Euskaraz argitaratutako liburuetarako	-	-	18.000	0,3	-	-	18.000	0,2
c) Literatura eta euskal irakurzaletasuna sustatzeko	-	-	78.000	1,5	70.000	1,5	148.000	1,4
d) Besterik	-	-	-	-	140.000	3,0	140.000	1,3
LIBURUGINTZA % hor.	-	-	96.000	1,8	210.000	4,6	306.000	2,8
		-		31,4		68,6		100,0
a) Antzerkian euskara sustatzeko	-	-	17.773	0,3	-	-	17.773	0,2
b) Zine munduan euskara sustatzeko	-	-	20.922	0,4	-	-	20.922	0,2
c) Bertsolaritza sustatu eta hedatzeko	24.000	2,6	135.264	2,5	334.110	7,3	493.374	4,5
d) Euskal kantagintza sustatzeko	-	-	4.933	0,1	-	-	4.933	0,0
e) Euskal kultura sendotu eta hedatzeko	-	-	125.289	2,3	5.500	0,1	130.789	1,2
f) Besterik	-	-	-	-	140.000	3,0	140.000	1,3
KULTURGINTZA % hor.	24.000	2,6	304.182	5,7	479.610	10,4	807.792	7,4
		3,0		37,7		59,4		100,0
a) Euskararen corpusa eta kalitatea hobetzeko egitasmo eta erakundeentzako	100.000	10,7	565.000	10,6	275.220	6,0	940.220	8,6
c) Ahozko ondarea gorde eta hedatzeko lanetarako	-	-	-	-	218.750	4,8	218.750	2,0
d) Besterik	100.000	10,7	10.000	0,2	-	-	110.000	1,0
CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA % hor.	200.000	21,4	575.000	10,8	493.970	10,7	1.268.970	11,7
		15,8		45,3		38,9		100,0
a) Euskarazko idatzizko hedabideetarako	-	-	-	-	994.005	21,6	994.005	9,1
b) Euskarazko ikus-entzunezko hedabideetarako	-	-	340.000	6,4	563.279	12,3	903.279	8,3
e) Euskarazko hedabideak sustatu eta sendotzeko	50.000	5,3	645.661	12,1	-	-	695.661	6,4
HEDABIDEAK % hor.	50.000	5,3	985.661	18,5	1.557.284	33,9	2.592.945	23,9
		1,9		38,0		60,1		100,0

	Foru Aldundia							
	Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia		Guztira	
	€	%	€	%	€	%	€	%
a) Toki entitateetan EBPB/ESEP garatzeko	-	-	-	-	408.832	8,9	408.832	3,8
b) Udal eta mankomunitateek bultzatutako euskara egitasmoetarako	281.000	30,0	745.326	14,0	80.000	1,7	1.106.326	10,2
c) Besterik	111.564	11,9	-	-	-	-	111.564	1,0
TOKI ENTITATE ETA MANKOMUNITATEENTZAKO DL % hor.	392.564	42,0	745.326	14,0	488.832	10,6	1.626.722	15,0
a) Euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzako	84.525	9,0	793.753	14,9	583.084	12,7	1.461.363	13,4
b) Euskara sustatu eta zabaltzeko egiten diren jardueretarako	25.000	2,7	-	-	-	-	25.000	0,2
d) Hizkuntza normalkuntzarako ikerketa eta proiektu orokorretarako	-	-	-	-	167.930	3,7	167.930	1,5
BESTELAKO EGITASMO ETA DIRULAGUNTZAK % hor.	109.525	11,7	793.753	14,9	751.014	16,3	1.654.293	15,2
Guztira % hor.	935.750	100,0	5.338.242	100,0	4.597.849	100,0	10.871.841	100,0
		8,6		49,1		42,3		100,0

Iturria:Siadeco, 2019

Dirulaguntzek izandako eboluzioa aztertzeko, aldundiek biztanle bakoitzeko emandako dirulaguntzak hartu dira kontuan.

- Arabako Foru Aldundia. 2,85 euro jarri ditu herritar bakoitzeko. 2012koa eta 2014koa baino kopuru handiagoa da 2018koa, baina 2016koa baino apalagoa. Jaitsierarik handiena tokiko entitateentzat emandako dirulaguntzetan izan da 2016tik 2018ra: %14,4ko mozketara.
- Bizkaiko Foru Aldundia. 4,67 euro jarri ditu bizkaitar bakoitzeko, 2016ko zenbateko berbera. Kopuru hori 2014koa baino handiagoa da, baina 2012koa baino txikiagoa. 2016tik 2018rako diferentziari dagokionez, euskalduntze-alfabetatzea da nabarmentzekoa, dirulaguntzak bikoiztu baino gehiago egin direlako (%116). Galeretan, liburugintza da handiena (-%60,5).
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Biztanle bakoitzeko 6,41 euro jarri ditu 2018an, aurreko hiru neurraldian baino gehiago. Igoerarik handiena liburugintzako da, aurrekontua bikoiztu egin baita 2016tik 2018ra (%100), eta hedabideen laguntzetan %17ko gorakada izan da. Txanponaren beste aldean daude aisia eta kirola (-%28,8), tokiko entitateentzako laguntzak (-%18,5) eta arlo sozioekonomikoa (-%17,9).

43. Taula: Foru aldundien biztanle bakoitzeko dirulaguntzen aurrekontuaren bilakaera 2012-2018, eremua eta erakundeari jarraikiz

	Arabako Foru Aldundia				Bizkaiko Foru Aldundia				Gipuzkoako Foru Aldundia				Foru Aldundiak GUZTIRA			
	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)
Familia bidezko transmisioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskalduntze-alfabetatzea	0,2	0,2	0,5	0,5	-	-	0,2	0,4	-	-	-	0,0	-	-	0,2	0,3
EUSKARAREN EZAGUTZA ETA TRANSMISIOA GUZTIRA	0,2	0,2	0,5	0,5	-	-	0,2	0,4	-	-	-	0,0	-	-	0,2	0,3
Administrazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	-	-	-	-	0,8	0,7	0,7	0,7	0,6	0,6	0,6	0,7	0,6	0,5	0,6	0,6
Arlo sozioekonomikoa	-	-	0,1	-	0,2	0,2	0,2	0,2	0,3	-	0,2	0,1	0,2	0,1	0,2	0,2
Aisia eta kirola	-	-	-	-	-	-	0,2	0,3	0,1	0,1	0,1	0,1	-	-	0,1	0,2
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO	-	-	0,1	-	1,0	0,8	1,2	1,2	1,1	0,6	0,8	0,9	0,9	0,7	0,9	0,9
Liburugintza	-	-	-	-	0,5	0,5	0,2	0,1	0,3	0,1	0,1	0,3	0,4	0,3	0,1	0,1
Kulturgintza	0,3	0,1	0,1	0,1	-	-	0,2	0,3	-	0,6	0,5	0,7	0,1	0,2	0,3	0,4
Publizitatea (2012an arlo sozioekonomikoaren barnean)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	0,2	0,3	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5	0,5	1,0	0,6	0,6	0,7	0,7	0,6	0,5	0,6
Hedabideak	-	-	0,1	0,2	0,3	0,3	0,7	0,9	1,2	1,4	1,8	2,2	0,5	0,6	1,0	1,2
EUSKARAREN CORPUSA, HEDABIDE ETA KULTURGINTZARAKO	0,5	0,4	0,8	0,8	1,3	1,4	1,6	1,7	2,5	2,7	3,1	3,8	1,6	1,7	2,0	2,3
Toki entitate eta mankomunitateentzat	1,2	1,3	1,4	1,2	1,5	1,0	0,6	0,7	0,6	0,8	0,8	0,7	1,2	1,0	0,8	0,7
Bestelako egitasmo, diru laguntza eta hitzamenak	0,2	0,7	0,4	0,3	1,5	1,2	1,0	0,7	0,6	0,9	1,0	1,1	1,0	1,1	0,9	0,8
EUSKARAREN SUSTAPEN PLANGINTZA ETA EGITASMO OROKORRETARAKO	1,4	2,0	1,8	1,5	3,0	2,2	1,6	1,4	1,2	1,7	1,8	1,7	2,2	2,0	1,7	1,5
GUZTIRA	2,1	2,6	3,3	2,9	5,4	4,4	4,7	4,7	4,8	5,1	5,9	6,4	4,7	4,4	1,9	5,0

Iturria: Siadeco, 2019.

4.4. Hiriburuak

Hiru hiriburuetan 2018an emandako dirulaguntzek 2,3 milioiko zenbatekoa dute: 877 mila Bilboko Udalak, 780 mila Gasteizkoak eta 687 mila Donostiakoak. Zenbateko horiek lotzen badira euskara aurrekontu osoarekin, Bilbok bideratu du aurrekontuaren zatirik handiena laguntzetara (%37,4), eta biztanleko laguntza ratorik handiena Donostiako Udalak du (3,78 euro).

44. Taula: Hiriburuetakako udalen dirulaguntzen aurrekontuak (2018)

		HIRIBURUAK			
		Gasteiz	Bilbo	Donostia	Guztira
Dirulaguntzak guztira	Euroak	779.690	876.518	687.234	2.343.442
	% hor	33,3	37,4	29,3	100,0
Euskara aurrekontu osoarekiko %		15,9	37,4	23,8	23,2
Dirulaguntzak biztanleko (euro/biztanle)		3,17	2,55	3,78	3,04

Iturria: Siadeco, 2019.

Jarduera esparru bakoitzean hauek dira dirulaguntzarik aipagarrienak:

- Euskalduntze-alfabetatzea. 647 mila euro jarri dituzte hiru hiriburuen artean: dirulaguntzen %27,6 esan nahi du horrek. Donostiako eta Gasteizko udalek ematen dituzte esparru horretako laguntzak.
- Irakaskuntza. Eskola ordutik kanpoko euskarazko ekintzak lagundu dituzte, besteak beste: 354 mila euro jarri dituzte Gasteizko eta Bilboko udalek.
- Bestelako egitasmo eta dirulaguntzak. Euskara elkarteak babesteko laguntzetara eta halakoetara 324 euro bideratu dituzte; gehien, Bilboko Udalak (221 mila euro).
- Aisia eta kirola. Batik bat hurrekin eta gazteekin aisia euskaraz garatzeko dirulaguntzak dira, eta 213 mila euro bideratu dituzte: Bilboko Udalarena da zenbatekorik handiena.
- Corpusa eta hizkuntzaren kalitatea. 210 euro bideratu dituzte esparru horretara. Bilboko Udalak jarri du zenbateko horren gehiena, 148 mila euro.
- Familia transmisioa. 166 mila euro jarri dituzte arlo horretarako laguntzetan, eta Bilboko Udalak eman du zatirik handiena: batik bat gurasoei zuzendutako ikastaroak babestu dituzte.
- Kulturgintza. 158 mila euroren dirulaguntzak banatu dituzte kulturgintzaren arloan; tartean dago bertsolaritzaren sustapena. Gasteizko Udalarena da zenbatekorik handiena.
- Hedabideak. 150 mila euro jarri dituzte hedabideetan euskara sustatzeko: Donostiako Udalarena da dirulaguntzen zenbatekorik handiena, 130 mila euro.
- Arlo sozioekonomikoa. Dirulaguntzen %1,8 bideratu dituzte esparru sozioekonomikoan euskara sustatzera: 42 mila euro. Gehiena, Gasteizko Udalak (40 mila euro).
- Administrazioa. Euskara ikastaroetara joandako langileen ordezkapenak estaltzeko izan da diru gehien. 40 mila euroren laguntzak banatu dituzte Gasteiz eta Donostiako Udalek..
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. 18.500 euro jarri dituzte IKTen esparrurako, eta Bilboko Udalarena da laguntzen zenbatekorik handiena (15 mila euro).
- Liburugintza. Euskarazko liburuak bultzatzeko laguntzak banatu ditu Gasteizko Udalak: 18 mila euro.

45. taula: Hiriburuen euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuari jarraikiz (2018) (1/3)

		Gasteiz		Bilbo		Donostia		Hiriburuak Guztira	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gurasoei zuzendutako ikastaroetako		-	-	156.383	17,8	-	-	156.383	6,7
Besterik-Familia		10.000	1,3	-	-	-	-	10.000	0,4
FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	euroak	10.000	1,3	156.383	17,8	-	-	166.383	7,1
	% hor.		60		94,0		-		100,0
Ikastetxeek edo guraso elkarteek antolatutako eskola orduz kanpoko ekintzetarako		180.000	23,1	49.949	5,7	-	-	229.949	9,8
Ikastetxeek euskararen alde antolatutako ekimen eta jaietarako		24.300	3,1	-	-	-	-	24.300	1,0
Besterik-Irakaskuntza		-	-	100.000	11,4	-	-	100.000	4,3
IRAKASKUNTZA	euroak	204.300	26,2	149.949	17,1	6.500	1,1	354.249	15,1
	% hor.		57,7		42,3				100,0
Euskara ikasleentzako dirulaguntza orokorrak		127.078	16,3	-	-	303.521	44,2	430.598	18,4
Unibertsitateek antolatutako udako ikastaroetarako		101	0,0	-	-	-	-	101	0,0
Euskaltegi pribatuei euskara ikastaroengatik		99.000	12,7	-	-	47.594	6,9	146.594	6,3
Mintzalaguna egitasmoa aurrera eramateko		53.175	6,8	-	-	4.400	0,6	57.575	2,5
Besterik-Euskalduntzea		12.000	1,5	-	-	-	-	12.000	0,5
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	euroak	291.353	37,4	-	-	355.515	51,7	646.868	27,6
	% hor.		45,0				55,0		100,0
Euskara ikastaroetara joaten diren administrazio publikoko langileak ordezkatzeko		-	-	-	-	4.483	0,7	4.483	0,2
Administrazioko langileen euskalduntze-alfabetatze ikastaroetarako		22.651	2,9	-	-	-	-	22.651	1,0
Toki-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko		-	-	-	-	13.350	1,9	13.350	0,6
ADMINISTRAZIOA	Euroak	22.651	2,9	-	-	17.833	2,6	40.484	1,7
	% hor.		56,0		-		44,0		100,0
Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzeko		-	-	-	-	3.640	0,5	3.640	0,2
Ikus-entzunezkoen arloan euskarazko sorrera bultzatzeko		-	-	14.900	1,7	-	-	14.900	0,6
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA	euroak	-	-	14.900	1,7	3.640	0,5	18.540	0,8
	% hor.		-		80,4		19,6		100,0

46. taula: Hiriburuen euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuari jarraikiz (2018) (2/3)

		Gasteiz		Bilbo		Donostia		Hiriburuak Guztira	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko egitasmoetarako		26.350	3,4	-	-	-	-	26.350	1,1
Saltoki eta enpresetako errotilazioa euskalduntzeko		3.080	0,4	-	-	2.442	2,4	5.521	0,2
Besterik-Arlo sozioekonomikoa		10.500	1,3	-	-	-	-	10.500	0,4
ARLO SOZIOEKONOMIKO A	euroak	39.930	5,1	-	-	2.442	0,4	42.371	1,8
	% hor.		94,2		-		5,8		100,0
Euskaraz garatutako haur eta gazteen aisialdirako		24.255	3,1	186.200	21,2	-	-	210.455	9,0
Besterik-Aisia eta kirola		2.700	0,3	-	-	-	-	2.700	0,1
AISIA ETA KIROLA	euroak	26.955	3,5	186.200	21,2	-	-	213.155	9,1
	% hor.		12,6		87,4		-		100,0
Euskal liburuen itzulpenetarako		18.000	2,3	-	-	-	-	18.000	0,8
LIBURUGINTZA	euroak	18.000	2,3	-	-	-	-	18.000	0,8
	% hor.		100,0		-		-		100,0
Antzerkian euskara sustatzeko		-	-	-	-	33.765	4,9	33.795	1,4
Zinema munduan euskara sustatzeko		10.500	1,3	-	-	19.080	2,8	29.580	1,3
Bertsolaritza sustatu eta hedatzeko		48.000	6,2	-	-	22.000	3,2	70.000	3,0
Besterik-Kulturgintza		25.000	2,4	-	-	-	-	25.000	1,1
KULTURGINTZA	euroak	83.500	10,7	-	-	74.845	10,9	158.345	6,8
	% hor.		52,7		-		47,3		100,0
Euskararen corpusa eta kalitatea hobetzeko egitasmo eta erakundeentzako		-	-	148.100	16,9	-	-	148.100	6,3
Toponimia lanak egin eta zabaltzeko		63.000	8,1	-	-	-	-	63.000	2,7
CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA	euroak	63.000	8,1	148.100	16,9	-	-	211.100	9,0
	% hor.		29,8		70,2		-		100,0

47. taula: Hiriburuen euskara sustatzeko dirulaguntzak, eremuari jarraikiz (2018) (3/3)

		Gasteiz		Bilbo		Donostia		Hiriburuak Guztira	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Euskarazko idatzizko hedabideetarako		-	-	-	-	90.000	13,1	90.000	3,8
Euskarazko ikus-entzunezko hedabideetarako		-	-	-	-	40.000	5,8	40.000	1,7
Euskarazko hedabideen hobekuntzarako		20.000	2,6	-	-	-	-	20.000	0,9
HEDABIDEAK	euroak	20.000	2,6	-	-	130.000	18,9	150.000	6,4
	% hor.		13,3		-		86,7		100,0
Euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzako		-	-	128.368	14,6	102.960	15,0	231.347	9,9
Euskara sustatu eta zabaltzeko egiten diren jardueretarako		-	-	92.600	10,6	-	-	92.600	4,0
BESTELAKO EGITASMO, DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK	euroak	-	-	220.986	25,2	102.960	15,0	323.947	13,8
	% hor.		-		68,2		31,8		100,0
GUZTIRA	Euroak	779.690	100,0	876.518	100,0	687.234	100,0	2.343.442	100,0
	% hor.		33,3		37,4		29,3		100,0

Iturria: Siadeco, 2019.

Hiriburuak dirulaguntzetara bideratutako kopuruaren eboluzioa begiratzeko, kalkulatu da zenbatekoa den dirulaguntza horien ratioa biztanle bakoitzeko. Badira gorabeherak. Donostiak du ratioirik handiena (3,8 euro), eta areagotu egin du 2016tik; Gasteiz dago bigarren lekuan (3,2 euro), eta aldiz aldi ari da zenbatekoa areagotzen; eta Bilbo dago hirugarren (2,6 euro), baina hark ere aurreko neurraldietan baino ratio handiagoa izan du.

48. taula: Hiriburuen biztanle bakoitzeko dirulaguntzen aurrekontuaren bilakaera (2012-2018), eremuari eta erakundeari jarraikiz

	Gasteiz				Bilbo				Donostia				Hiriburuak GUZTIRA			
	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)	2012 (€/biz- tanleko)	2014 (€/biz- tanleko)	2016 (€/biz- tanleko)	2018 (€/biz- tanleko)
Familia bidezko transmisioa	-	-	0,0	0,0	0,5	0,3	0,2	0,5	-	-	-	-	0,2	0,1	0,1	0,2
Irakaskuntza	0,8	0,5	0,5	0,8	0,5	0,4	0,5	0,4	0,1	0,1	0,1	0,0	0,5	0,4	0,4	0,5
Euskalduntze-alfabetatzea	0,8	1,0	1,3	1,2	-	-	0,1	-	1,5	1,8	1,7	2,0	0,6	0,7	0,8	0,8
EUSKARAREN EZAGUTZA ETA TRANSMISIOA GUZTIRA	1,6	1,5	1,8	2,1	1,1	0,8	0,8	0,9	1,5	1,8	1,8	2,0	1,3	1,2	1,3	1,5
Administrazioa	0,1	-	0,1	0,1	-	-	-	-	0,3	0,1	0,1	0,1	0,1	-	0,0	0,1
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	-	-	-	-	-	0,1	0,0	0,0	0,1	-	-	0,0	-	-	0,0	0,0
Arlo sozioekonomikoa	-	0,1	0,1	0,2	-	-	-	-	-	-	0,0	0,0	-	0,1	0,1	0,1
Aisia eta kirola	0,2	0,3	0,2	0,1	0,6	0,6	0,6	0,5	0,1	0,2	-	-	0,3	0,4	0,3	0,3
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO	0,3	0,4	0,3	0,4	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5	0,3	0,1	0,1	0,5	0,5	0,4	0,4
Liburugintza	0,1	0,1	-	0,1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,0
Kulturgintza	0,3	0,5	0,5	0,3	-	-	0,0	-	-	0,4	0,2	0,4	0,1	0,3	0,2	0,2
Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	0,1	0,3	0,2	0,3	0,1	0,2	0,2	0,4	-	-	-	-	0,1	0,2	0,2	0,3
Hedabideak	-	-	0,1	0,1	-	-	-	-	0,9	0,9	0,7	0,7	0,2	0,2	0,2	0,2
EUSKARAREN CORPUSA, HEDABIDE ETA KULTURGINTZARAKO	0,5	0,8	0,8	0,8	0,1	0,3	0,3	0,4	0,9	1,3	0,9	1,1	0,4	0,7	0,6	0,7
Bestelako egitasmo, diru laguntza eta hitzarmenak	-	-	-	-	0,5	0,2	0,2	0,6	0,3	0,3	0,4	0,6	0,3	0,2	0,2	0,4
EUSKARAREN SUSTAPEN PLANGINTZA ETA EGITASMO OROKORRETARAKO	-	-	-	-	0,5	0,2	0,2	0,6	0,3	0,3	0,4	0,6	0,3	0,2	0,2	0,4
GUZTIRA	2,4	2,7	3,1	3,2	2,2	1,8	1,9	2,6	3,3	3,8	3,4	3,8	2,5	2,6	2,6	3,0

Iturria: Siadeco, 2019.

4.5. Udalak

5.000 biztanle baino gehiagoko udalen datuak aztertuta, alde handiak ageri dira herrialde batekoen eta bestekoen artean. Adibidez, hartzen bada biztanle bakoitzeko zenbat diru bideratu den euskara arloko dirulaguntzetara, hara: Arabako udalek, 6,77 euro; Bizkaikoek, 11,72; eta Gipuzkoakoek, 15,99.

49. taula: Udalen dirulaguntzen aurrekontuak (2018)

		5.000 biztanlez gorako udalak			
		Arabako udalak	Bizkaiko udalak	Gipuzkoako udalak	Guztira
Dirulaguntzak guztira	Euroak	230.610	7.997.674	7.575.008	15.803.291
	% hor	1,5	50,6	47,9	100,0
Euskara aurrekontu osoarekiko %		23,2	43,7	40,0	41,4
Dirulaguntzak biztanleko (euro/biztanle)		6,77	11,72	15,99	13,28

Iturria: Siadeco, 2019.

